

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA



DSS
2016
EU

EGITARAUAREN AURRERAPENA
AVANCE DE PROGRAMA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA






Herritarren energia-olatuak
Elkarbizitzarako kultura.

Olas de energía ciudadana,
cultura para la convivencia.



AURKIBIDEA

ÍNDICE

Hiria, pertsonak osatutako sarea La ciudad como una red de personas	5 7
ITSASARGIAK / FAROS	11
KAIKAK / MUELLES	15
ENBAXADAK / EMBAJADAS	19
 BAKEA PAZ	Tratado de paz 22 Antzerki Foruma: Eta hik zer? 24 Entre arenas 26 Dance 2gether 27 Festival antibelicista 28 Sin lugares, sin tiempo 29 Paredes que hablan 30 Tiras que aflojan 31 La milla de la paz 32 EuroTransit 33
 BIZITZA VIDA	Hirikilabs 36 DSSirez 38 Time Machine Soup 40 2016 bidea 41 Winter Solstice Call 42 (K)idea 43 Zubiideak 44 San Juan 2016 45 Diálogos europeos 46 Biziz 47
 AHOTSAK VOCES	Emusik 50 Sueño de una noche de verano 52 World Puppetry Festival 54 Olatu Talka 55 In Other Words 56 Cornes of Europe 57 Europa bat-batean 58 Kalebegiak 59 In varietate concordia 60 Tosta cc 61
ENERGIA-OLATUAK / OLAS DE ENERGÍA	63
ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES	65
ONDAREA / LEGADO	67
2016 GUNEA / ESPACIO 2016	69
EUROPAKO BAZKIDEAK / SOCIOS EUROPEOS	70



Hiria, pertsonak osatutako sarea

Sare bat, zein metafora iradokitzailea! Era egokian banatutako korapiloen sistema zehatza, soka pila tresna bikain bihurtzen duena. Mendetan Donostiako itsas kultura moldatu duen funtsezko lanabesa izan zen sarea. Gaur egun, tresna garaikideagoak iradokitzen dizkigu sare hitzak: Internet, teknologia berriak...

Lehen arrantzaleak Urgull mendiaren alderik babestuenean kokatu zirenetik gaur egunera, haur donostiarrek jasotzen duten lehen jostailua beren gurasoen mugikorra den egunotara, Europaren norakoa eraiki duten gertaera eta joeren lekuko izan da Donostia. Aitzindari izan zen Donostia Atlantikoko merkataritza-trukean, batez ere balearen arrantzak, itsas zabaleko arrantzak eta Amerikarekin egiten zen merkataritzak emandako bulkada ekonomikoari esker. Gerra napoleonikoen biktima izan zen eta eragindako hondamendiak aztarna ezabaezina utzi du hiriaren memorian. Eta, gaur egun, kultur erreferente bihurtu da nazioartean, garrantzi handiko jaialdien egoitza gisa. Jaki onenaren habia. Europako hizkuntzarik zaharrenaren hiriburu.

Hiri honek, Europako agintaritzak Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko konbentzitzea lortu zuenak, *Herritarren energia-olatuak. Elkarbizitzarako kultura* izeneko proiektua aurkeztu zuen. Garai hartan, indarkeria eta bere ondorioak ziren euskal gizartearen kezka nagusietakoak.

Gaur egun, gehien espero dugun urtea iristeko hilabete gutxi geratzen direnean, bestelakoak dira euskal gizartearen kezka nagusiak. Tsunami ekonomiko batek Europako kostaldea astindu du. Kultur fenomeno eta erronka ekonomiko eta sozial berriek moldatzen dute gizartea gaur egun. Alta, bai lehen, bai gaur egun, gizarte bateratu, ireki, konektatu eta landu bat sustatzea da babesleku onena. Sare baten antzera. Eta metaforaren alde honetara gauden guztioi kal-

tetuta dauden zatiak josten laguntzea dagokigu, apaltasunik handienarekin betiere.

Hori dela-eta, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren leloa *Herritarren energia-olatuak. Elkarbizitzarako kultura* da. Bai, proiektu handizale eta konplexu baten aurrean gaude, eta epe laburrera ezinezkoa izango da proiektuaren arrakasta nabarmentzea. Europako beste hiri garrantzitsu batzuetan antolatutako edizioetan ez bezala, gure proiektuak ez du hiriaren sustapen turistikoa bakarrik egin nahi, elkarbizitzaren eta kultur ekintzaren eredu gisa ere agertu nahi du. Kontzertu, erakusketa eta adierazpen artistikoen egitarau bat osatzeaz haratago doa, oso bestelako helburua baitu: proiektuak sortzen eta garatzen ari diren heinean, herritarren eta kolektiboen arteko loturak ehuntzea, gizarte bateratuago bat eta elkarbizitza-eredu berri bat lortu ahal izateko, herritarren lidergo aktiboaren bidez.

Programazioaren aurrerapen honetan barne hartu diren 30 proiektuetan, eta DSS2016€uren gainerako edukietan, loturak, proiektu bateratuak eta erlazioak ezartzen dira, kultur sustatzaile, auzokideen elkarte, enpresa publiko, hornitzaile pribatu, ikerketa-zentro, erakunde, gizarte-erakunde eta pentsamendu-zentroen artean, eta, nola ez, askotariko esparruetako sortzaile eta artisten artean: dramagileak, arkitektoak, diseinatzaileak, koreografoak, musikariak...

2016an garatuko dira proiektu guztiak, jakina. Baina pertsonen artean sortutako harremanak eta sareak 2017az haraindi irauteko pentsatu dira. Denboraleak desagertuko ez badira ere, Donostia aukeratu zutenetik prestakuntzak iraun dituen urteetan egindako lanak gure hiriko sarea indartzeko eta sare trinkoago bat osatzeko balio izan badu, gure ahaleginak merezi izan duela esan ahal izango dugu.

La ciudad como una red de personas

¡Qué metáfora tan sugerente, una red! Un preciso sistema de nudos convenientemente distribuidos que convierten un manojo de cuerdas en una herramienta formidable. La red fue durante siglos herramienta básica de la cultura marítima que ha modelado Donostia/San Sebastián desde su fundación. Hoy en día, la palabra red sugiere herramientas más contemporáneas: Internet, nuevas tecnologías...

Desde que los primeros pescadores poblaron la parte más recogida del monte Urgull hasta esta época en la que el primer juguete de los bebés donostiarras es el móvil de sus madres y padres, San Sebastián ha sido testigo de acontecimientos y tendencias que han forjado el destino de Europa. La ciudad fue pionera del intercambio comercial en el Atlántico, gracias al empuje económico de la caza de la ballena, la pesca de altura y el comercio con América. Fue víctima de las guerras napoleónicas, cuyos destrozos dejaron una huella imborrable en su memoria. Y hoy en día constituye todo un referente internacional en el sector cultural, como sede de grandes festivales. Como meca de la buena mesa. Como capital de la lengua más antigua de Europa.

San Sebastián, la ciudad que convenció a las autoridades europeas para que le otorgaran el honor de acoger la Capitalidad Europea de la Cultura en 2016, presentó al jurado el proyecto *Olas de energía ciudadana. Cultura para la convivencia*. En aquel entonces, la violencia y sus consecuencias eran una de las primeras preocupaciones de la sociedad vasca.

Hoy en día, cuando sólo quedan unos pocos meses para el año más esperado, otras preocupaciones han tomado su lugar. Un tsunami económico ha batido las costas europeas. Nuevos fenómenos culturales y desafíos económicos y sociales moldean la sociedad. Pero tanto entonces como ahora, el mejor refugio sigue

siendo el fomento de una sociedad integrada, abierta, conectada, cultivada. Como una red. Con la mayor humildad, nuestra labor a este lado de la metáfora es la de ayudar a tejer las partes dañadas.

Por eso *Olas de energía ciudadana. Cultura para la convivencia* sigue siendo el lema de la Capital Europea de la Cultura de San Sebastián 2016. Sí, es un proyecto ambicioso, complejo, cuyo éxito no podrá percibirse en el corto plazo. A diferencia de otras ediciones organizadas por grandes ciudades europeas, nuestro proyecto desea una promoción que trascienda lo turístico, referenciándola como un modelo de convivencia y actividad cultural. No se limita al diseño de una programación de conciertos, exposiciones u otras manifestaciones artísticas. El objetivo es otro: que durante las fases de concepción y desarrollo de cada proyecto se vayan tejiendo conexiones entre personas y colectivos para lograr una sociedad más integrada y un nuevo modelo de convivencia, al que solo llegaremos desde el liderazgo activo de la ciudadanía.

Durante el diseño de los 30 proyectos incluidos en este avance de programación y el resto de los contenidos de DSS2016EU se han establecido vínculos, proyectos conjuntos y relaciones entre promotores culturales, asociaciones vecinales, empresas públicas, proveedores privados, centros de investigación, instituciones, organizaciones de carácter social, centros de pensamiento y, cómo no, artistas y creadores de los más diversos ámbitos: dramaturgos, arquitectas, diseñadores, coreógrafas, músicos...

En 2016 se desarrollará la mayor parte de los proyectos, sí. Pero las relaciones entre personas y las redes que se han creado están pensadas para que permanezcan más allá de 2017. Aunque no desaparecerán los temporales, si durante todos los años de preparación, desde que San Sebastián fuera elegida, hemos contribuido a fortalecer nuestra red ciudadana, en hacerla más tupida, el esfuerzo habrá merecido la pena.





ITSASARGIAK FAROS

IBILALDI HONEN ARGIA

Europako Kultur Hiriburu gehienek diziplina artistikoen edo generoen arabera antolatu ohi dute programazioa. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzak, bere eredu berritzailea zintzo jarraituz, gaikako itsasargiak erabili ditu edukiak antolatzeko, hautagaitza aurkeztu zuen fasetik jada. Zergatik?

Proiektuaren sustatzaileei eta proiektua hautatu zuen batzordeari iruditu zitzaizolako itsasargi bakoitzak elkarbizitzarako eredu berri baterantz gida ditzakeela herritarrak, gizartea eraldatzeko oinarritzko balioak argiztatuz. Programaren lan-eremua hiru arlotara zuzenduta dago: bakea, bizitza eta ahotsak.


BAKEAREN ITSASARGIAK giza eskubi-deak eta duintasuna sustatu nahi ditu; euskal gizartea, elkarrizketa baliatuta, normalizazioa lortzeko eta arazoak konpontzeko bidea egiten ari da pixkanaka. Baina elkarbizitza gure mugez haraindi

LA LUZ DE ESTA SINGLADURA

La mayoría de las Capitales Europeas de la Cultura suelen organizar su programación por disciplinas artísticas o géneros. Fiel a su modelo innovador, la Capital Europea de la Cultura de Donostia/San Sebastián 2016 ha organizado sus contenidos, ya desde la fase de candidatura, en faros temáticos. ¿Por qué?

Porque los promotores del proyecto, así como el comité que lo seleccionó, consideraron que cada faro puede guiar a la ciudadanía hacia un nuevo modelo de convivencia, iluminando los valores fundamentales para una transformación social. El programa fija su campo de trabajo en tres áreas: la paz, la vida y las voces.

EL FARO DE LA PAZ quiere fomentar la dignidad humana y los derechos humanos; la sociedad vasca poco a poco camina hacia la normalización y la resolución de sus problemas por



dagoen helburua da; Europan inoiz baino biziago dagoen helburua da. Kontinente barruko zein kanpoko elkarbizitza asaldatzen duten gizarte-fenomenoei gogoeta egin eta ulertzen ikasteko, **BAKEAREN ITSASARGIAK** bakea eta errespetua sustatzeko balioak zabaltzea bilatzen du.


BIZITZAREN ITSASARGIAK pertsonen, familien eta, oro har, gizartearen eguneroko bizitza hobetzea bilatzen du. Bizitza osasuntsuago, aberatsago eta oparoagoa, herritarrek elikadura, kirol, osasun eta hezkuntzaren bitartez, bizi-kalitate hobea eduki dezaten. Gaur egungo hirietako bizitzaren abailak sortzen dituen zailtasunak arintzeko proiektuak dira.

Azkenik, **AHOTSEN ITSASARGIAREN** eskutik, adierazpen artistikoei, hala nola zinemak, arte plastikoek, literaturak edo musikak, emozioa, hausnarketa eta besteenganako loturak sustatzeko duten gaitasuna azpimarratzen da. Espresioa, transmisioa eta komunikazioa bere hiru zutabeak dira eta ezikusitako esanahi eta dimentsioko proiektuak bultzatzen ditu. Baita ahots berriak eta Europarekin loturak ere.


las vías del diálogo. Pero la convivencia es un fin que trasciende nuestras fronteras, una ambición más actual que nunca en el escenario europeo. Nuevos fenómenos sociales agitan la convivencia dentro y fuera del continente. Para reflexionar sobre ellos y aprender a comprenderlos, el **FARO DE LA PAZ** pretende difundir valores de paz y respeto.

El **FARO DE LA VIDA** está centrado en mejorar el devenir cotidiano de personas, familias y la sociedad en general. Una vida más saludable, más rica y próspera que permita a la ciudadanía gozar de una mayor calidad de vida a través de la alimentación, el deporte, la salud y la educación. Proyectos para atenuar las dificultades que provoca en la cotidianidad el frenesí de la vida urbana contemporánea.

Finalmente, el **FARO DE LAS VOCES** subraya la capacidad de las manifestaciones artísticas como el cine, el teatro, las artes plásticas, la literatura o la música para suscitar la emoción, la reflexión y los vínculos con los otros. La expresión, la transmisión y la comunicación son sus tres pilares, y promueve proyectos de dimensiones y significados inéditos en la ciudad, el impulso de nuevas voces y enlaces directos con Europa.







LAN EGITEKO BESTE MODU BAT

Gizartearen eraldaketan parte hartzea da datorren urtean Donostian garatuko den Europako Kultur Hiriburutzaren helburu nagusietako bat. Eta helburu hori lortzeko diseinatu dira programazioaren aurrerapen honetan aurkeztutako proiektuak, baita aurrerago jakinaraziko direnak ere.

Hala ere, Donostiako hiriaren ezauzgarriak kontuan hartuta, eraldaketa biziagoa behar duten bost arlo aukeratu dira, eremu horietan jorratzen diren programako proiektuek zeharkako helburu bereziak ere bete ditzaten. Arlo horiek SISTEMA izena hartu zuten hautagaitza garaian, eta egun KAIK deritze, orain arte erabili dugun itsasoko terminologiarekin jarraituz.

Herritarren parte-hartzea gizarte aurreratuago eta bateratuago bat lortzeko bide nagusi gisa ulertzen du DSS2016EUk. Horregatik, herritarrek erabakiak hartzeko duten potentziala

OTRA MANERA DE TRABAJAR

Participar de la transformación de la sociedad es uno de los principales objetivos de la Capitalidad Europea de la Cultura que acogerá San Sebastián el año que viene. Los proyectos que presenta este avance de programación y los que se anunciarán más adelante están diseñados para contribuir a la consecución de este objetivo.

Sin embargo, teniendo en cuenta la idiosincrasia de San Sebastián, se han escogido cinco áreas en las que intensificar la transformación, con el objetivo de que los proyectos que se desarrollen en dichas áreas cumplan también objetivos transversales. El dossier de candidatura las denominaba SISTEMAS, y actualmente reciben el nombre de MUELLES, siguiendo la terminología marítima.

DSS2016EU concibe la participación ciudadana como la senda principal hacia una sociedad más avanzada e



aprobetxatuko duen laborategi bat izateko sortu da BESTELAB kaia.

HIRIKIA kaia, bestalde, teknologia berrien integrazioa sendotzeko garatu da. Web-ingurunea, hardware askea edo gamifikazioa eta bideojokoen diseinua dira lantzen diren eremuak, beste batzuen artean.

Gure ustez, publiko berriak sortzeko eta kultur politika eraginkorragoak diseinatzeko funtsezkoa da sortzaileen eta audientzien arteko bitartekaritza. Helburu horri lotuta garatu dugu HAZITEGIAK kaia.

Donostia eta donostiarrak bereziki sensibilizatuta daude euskararekin eta, beraz, hizkuntza-aniztasunarekin. Horregatik sortu dugu 284+ kaia, Europako testuinguruan hizkuntza-aniztasunaren ezagutza eta garapena sustatzeko.

Azkenik, PAGADI kaiak jarduera artistiko garaiakideei buruz pentsamendu kritikoa lantzeko bitarteko bat jarriko du DSS2016Euren eskura, eta kultur programa osatzen duten proiektuei balio erantsia ematen lagunduko du.

integrada. Por eso, el muelle BESTELAB está concebido como un laboratorio para aprovechar todo el potencial que la ciudadanía puede aportar en la toma de decisiones.

Para consolidar la integración de las nuevas tecnologías se ha desarrollado el muelle HIRIKIA, que trabaja campos como el entorno web, el hardware libre o la gamificación y el diseño de videojuegos.


Consideramos que la mediación entre creadores y audiencias es fundamental para la generación de nuevos públicos y el diseño de políticas culturales más eficaces. Con este objetivo hemos desarrollado el muelle HAZITEGIAK.

San Sebastián y la ciudadanía donostiarra están especialmente sensibilizados con el euskera y, por tanto, con la diversidad lingüística. Por eso hemos desarrollado el muelle 284+, que impulsa el conocimiento y el desarrollo de la diversidad lingüística en el contexto europeo.

Finalmente, el muelle PAGADI aporta a DSS2016EU la herramienta del pensamiento crítico en relación con las actividades artísticas contemporáneas, para contribuir con un valor añadido a los proyectos que constituyen el programa cultural.







ENBAXADAK EMBAJADAS

EUROPAREKIN ZUZENEKO LOTURA

Hiria ez da bere mugetan bukatzen, bertako herritarrak iristen diren tokietan baizik. Hori dela eta, Donostiak kontinente zaharraren mugaldea lurrez eta itsasoz lotuz ospatu nahi du bere Europako Kultur Hiriburutza, Europak hainbat altxor baitu deskubritzeko. Altxor bat da kostaldeko ehunka herrik, itsasbazter ezberdinetakoak izanda ere, itsasoa geografia komun gisa partekatzea, eta kaiez kai lankidetzaz sare bat ehuntzea. Altxor bat da, baita ere, lau bazterretako hainbat hirik jasandako gerra eta gatazken historia aldarrikatzen duen identitate aniztun eta partekatua izatea. Edo, nola ez, baita mendetako sukaldeko tradizioak, arkitektura bereziak eta erlazioatzeko beste era batzuk dituen kontinente bat erakusten diguten bidaiak horiek ere! Olatuak zeharkatuz edo gurgipen gainean, DSS2016EU mugaz harantzago iritsiko da Europarekin zuzenean konektatzeko.

CONEXIÓN DIRECTA CON EUROPA

La ciudad no termina en sus lindes, sino allá donde llegan sus ciudadanas y ciudadanos. Es por ello que San Sebastián quiere celebrar su Capitalidad Europea de la Cultura conectando por tierra y mar distintos confines del viejo continente; Europa está llena de tesoros por descubrir. Es un tesoro el valor de un sinfín de localidades costeras que, desde distintos litorales, comparten el mar como una geografía común, tejiendo puerto a puerto una red de colaboración. Otro es la identidad múltiple y compartida que reivindica la historia de guerras y conflictos de diversas ciudades de los cuatro confines. ¡O qué decir de esos viajes que nos muestran un continente con siglos de tradiciones culinarias, arquitecturas singulares y otras formas de relacionarse! Surcando las olas o sobre ruedas, DSS2016EU traspasará fronteras para conectar directamente con Europa.



GIZA ESKUBIDEAK / DERECHOS HUMANOS

ELKARBIZITZA / CONVIVENCIA

ELKARTASUNA / SOLIDARIDAD

ANIZTASUNA / DIVERSIDAD

IDENTITATEA / IDENTIDAD

BAKEA

PAZ

BAKEAREN ITSASARGIA

Une batez beste pertsona bat izateko eta besteen emozioak sentitzeko aukera ematen diguten antzezlanak; edo Europako gerretan gaur egungo begiekin bidaiatzen uzten digutenak, edo branka elkarbizitzara begira jartzeko proiektuak.

BAKEAREN ITSASARGIA antzerkitik zuzeneko musikara bitarteko lengoaiak baliatzen dituen jardueren programa bat da, eta xede du gizarte adeitsuago, zuzenago eta solidarioago baten hazia ereitea. Ekimen hauekin, kulturaren bitartez sendetasunaren eremua emankortu nahi da, gorrotoaz eta indarkeriaz nekatuta dagoen gizarte batean.

FARO DE LA PAZ

Funciones teatrales que nos permiten ser otra persona momentáneamente y sentir emociones ajenas; viajar por la belicosa historia europea con ojos del presente, o actividades y proyectos para poner proa hacia una mejor convivencia. El FARO DE LA PAZ es un programa de actividades que se sirve de lenguajes que van desde el teatro a la música en directo con el objetivo de poner la semilla de una sociedad más respetuosa, justa y solidaria. Las iniciativas de este faro pretenden fertilizar el terreno de la fraternidad a través de la cultura en una sociedad cansada de la ira y la violencia.

Tratado de paz

EUROPAN BAKEAREN IRUDIKAPENARI BURUZ INOIZ EGIN DEN ERAKUSKETA HANDIENA

Ibilbide bat artean eta zuzenbidean gertatzen diren erlazioetan barna, bakearen, gerren eta indarkeriaren inguruan. Erakusketa nagusi bat antolatu da, bi espaziotan banatuta, Koldo Mitxelena Kulturunea eta San Telmo Museoa, eta 1500etik joan den mendearen amaiera arteko lanak ikusi ahal izango dira bertan. Erakusketa-proiektu honek 2013an lurraldeko hainbat kultur guneetan ikusgai egon zen Donostiako 1813ko sutearen erakusketan oinarritutako hitzaurrea osatzen du (1813. *Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea*).

Programa honek tokiko historiako hainbat mugarri eta gertakizunen azterketak edo erakusketak barne hartzen ditu, hala nola Pirinioetako Bakea edo Bergarako Besarkada. Era berean, proiektuan zazpi artista gonbidatzea aurreikusi da —Ibon Aranberri, Archivo Caminante-Eduardo Molinari, John Barker eta Ines Doujak, Mitra Farahani, Asier Mendizabal, Juan Luis Moraza eta Alejandra Riera; Oier Etxeberria, Nader Koochaki, Ixiar Rozas eta Leire Vergararen koordinaziopean— proiektua zeharkatzen duten gaiei buruz *Aldiriak* izeneko esku-hartze espezifikoa garatzeko. Azkenik, hiru argitalpen egitea aurreikusi da, erakusketa-sistema zabalagoa jasotzeko eta dokumentatzeko, eta baita hiru saiakera monografiko ere.

DSS2016Euren ekimen garrantzitsuenetako bat da erakusketa-sistema deskokatu hau. Gure balioen mapan funtsezkoa den gai bat, bakea, ikertzen duen proiektu bat da eta bete-betean egiten du bat, sortu zenetik, proiektuaren leloarekin eta *leitmotivarekin: Elkarbizitzarako kultura*.

ARTIUM - CENTRO-MUSEO VASCO DE ARTE CONTEMPORÁNEO
BERGARAKO AROZTEGI ARETOA BIBLIOTECA NACIONAL
CALCOGRAFÍA NACIONAL CAPC MUSÉE D'ART CONTEMPORAIN DE BORDEAUX
CENTRE NATIONAL D'ART ET DE CULTURE GEORGES POMPIDOU
FRAC FOND RÉGIONAL D'ART CONTEMPORAIN
FUNDACIÓN CARLOS DE AMBERES IRUNGO MENCHU GAL ARETOA
KOLDO MITXELENA KULTURUNEA LE BELLEVUE
MUSÉE BASQUE ET DE L'HISTOIRE DE BAYONNE
MUSÉE D'AQUITAINE MUSEO DE AMÉRICA
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO
MUSEO DE BELLAS ARTES DE GASTEIZ/ÁLAVA
MUSEO DEL EJÉRCITO MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA
MUSEO NACIONAL DEL PRADO MUSEU D'ART CONTEMPORANI DE BARCELONA
MUSEU NACIONAL D'ART DE CATALUNYA OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA
SAN TELMO MUSEOA TABAKALERA ZUMALAKARREGI MUSEOA

BAKEA
PAZ

LA MAYOR EXPOSICIÓN REALIZADA EN EUROPA SOBRE LA REPRESENTACIÓN DE LA PAZ

Un recorrido a través de las relaciones que se dan en el arte y el derecho en torno a la paz, las guerras y la violencia, mediante una exposición central dividida en dos espacios, Koldo Mitxelena Kulturunea y San Telmo Museoa, y un periodo que abarca desde 1500 hasta finales del siglo pasado. El proyecto expositivo completa el preámbulo basado en el incendio que sufrió la ciudad de San Sebastián en 1813, sus antecedentes y epílogo que estuvieron expuestos al público en diversos centros culturales del territorio en 2013.

El programa incluye varios casos de estudio o exposiciones sobre hitos y episodios de la historia local, como la Paz de los Pirineos o el Abrazo de Bergara. Además, el proyecto prevé la invitación a siete artistas —Ibon Aranberri, Archivo Caminante-Eduardo Molinari, John Barker e Ines Doujak, Mitra Farahani, Asier Mendizabal, Juan Luis Moraza y Alejandra Riera, bajo la coordinación de Oier Etxeberria, Nader Koochaki, Ixiar Rozas y Leire Vergara— para que desarrollen intervenciones específicas, denominadas *Afuera*, sobre los temas que atraviesan el proyecto. Finalmente, está prevista la edición de tres publicaciones que recogerán y documentarán el amplio sistema expositivo y que estarán acompañadas por tres ensayos monográficos.

Esta gran exposición deslocalizada es una de las principales iniciativas de DSS2016EU. Un proyecto que indaga en un tema esencial en el mapa de nuestros valores, la paz, y que encuentra perfecta coherencia con el lema y *leitmotiv* del proyecto desde su misma concepción: *Cultura para la convivencia*.

2015-2016 | DSS2016EU LURRALDEA
TERRITORIO DSS2016EU

Antzerki-foruma: Eta hik zer?

BAKETIK FUNDAZIOA

ANTZERKI PARTE-HARTZAILEA ELKARBIZITZA ETA ADISKIDETZEA SUSTATZEKO

Zapalduen antzerkia izeneko eskolaren premisak oinarrian hartuta, ekimen honek antzerkia gizarteko indarkeriak eta gatazkek eragindako sentimenduei, kontraesanei eta arketipoei heltzeko tresna gisa erabiltzea proposatzen du.

Bi orduko esperientzia pertsonal batean datza eta ikusleei euskal gizartearen iraganeko gatazka berriro gogora ekartzeko aukera ematen die, ondoren, taldearen etorkizunari leku berri batetik aurre egiteko. Horretarako, galdera hauen inguruan hausnaritzea proposatzen da: Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin behar dugu etorkizunean berriro ez gertatzeko? Eszenatokian eguneroko hainbat egoera antzetzuko dira eta publikoari eskatuko zaio historia garatzeko. Hau da, inprobisazioa baliatuz publikoaren parte-hartzea sustatuko da.

2015etik 2016ra 100 emanaldi eskainiko dira eta bakerako bidean gizartearen inspirazio izango diren etorkizuneko nahiak eta konpromisoak jasoko dira bertan. 2016an herritar guztiekin partekatuko dira aipatutako nahiak eta konpromisoak.

TEATRO PARTICIPATIVO PARA IMPULSAR LA CONVIVENCIA Y LA RECONCILIACIÓN

Basado en las premisas de la escuela del *Teatro del oprimido*, esta iniciativa propone usar el teatro como herramienta para abordar sentimientos, contradicciones y arquetipos provocados por la violencia y la conflictividad social.

Se trata de una experiencia personal de dos horas que permitirá a los espectadores revivir el conflictivo pasado inmediato de la sociedad vasca para afrontar el futuro colectivo desde un lugar nuevo, a través de las siguientes reflexiones: ¿Qué ha pasado y por qué? ¿Qué es lo que podemos hacer ahora? ¿Qué tenemos que hacer para que en el futuro no vuelva a suceder?

En el escenario, se representará una serie de situaciones cotidianas en las que se invitará al público a que decida cómo quiere que continúe la historia, fomentando su participación a través de la improvisación.

Se llevarán a cabo 100 sesiones entre los años 2015 y 2016, en las que se recolectarán los deseos y compromisos futuros que nos inspirarán como sociedad en el camino hacia la paz. En 2016, dichos deseos se expondrán y compartirán con la ciudadanía.

2016 | APIRILA-EKAINA | DONOSTIA
ABRIL-JUNIO | SAN SEBASTIÁN

Entre arenas

MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA
SAN TELMO MUSEOA

BAKEA
PAZ

Federico Guzmán.

SORMENA ETA GOGOETA JAIMA BATEN AZPIAN

Reina Sofía Museoak eta Federico Guzmán artistak batera sortu duten *Tuiza* instalazioa da proiektu honen epizentroa. Bojador-ko kanpamendu sahararretan tindatu diren *melhfa* jantziekin (Saharako emakumeen jantzi tradizionala) egindako jaima bat izango da, batasuna, elkartasuna eta enpatia irudikatuko duena.

Jaimaren babespean hainbat jarduera antolatuko da, hala nola tailerrak, hitzaldiak, ikuskizunak, eztabaidak... 2016ko apiriletik ekainera *Hondar artean* pedagogia-eta eztabaida-gunea izango da, eta bertan landuko diren gaien artean, giza eskubi-deak, emakumea bakearen eraikuntzan, kolonialismoa, nazioarteko lankidetzeta eta haurtzarora aipa daitezke.

CREATIVIDAD Y REFLEXIÓN BAJO UNA JAIMA

El epicentro de este proyecto es la instalación *Tuiza*, creada en coproducción con el Museo Reina Sofía por el artista Federico Guzmán. Una jaima compuesta por *melhfás* (vestidos típicos de la mujeres del Sáhara) tintadas en campamentos saharais de Bojador representará la unión, la solidaridad y la empatía.

Bajo la protección de la jaima se programarán diferentes actividades como talleres, conferencias, espectáculos, debates... Entre abril y junio del 2016, *Entre arenas* será un punto de encuentro pedagógico y dedicado al debate donde se tratarán temas como los derechos humanos, la mujer en la construcción de la paz, el colonialismo, la cooperación internacional y la infancia.

2015-2016 | DSS2016EU LURRALDEA
TERRITORIO DSS2016EU

Dance 2gether

DANTZAGUNEA | DE LOOPERS
LURRALDEKO IKASTETXEA

BAKEA
PAZ

SUICAfims / Rec grabaketa estudioa.

ELKARREKIN DANTZA EGITEKO GAI BAGARA, ELKARREKIN BIZI GAITEZKE

Dantza komunitarioaren bitartez, haurtzaroan hartzen diren rolen arteko desberdintasunak zalantzan jartzea, taldeko kide izatearen sentimendua indartzea eta lankidetzaz sustatzea bilatzen duen esperimendu batean datza. Proiektuaren hasieran, dantza komunitarioari buruzko prestakuntza-saioak antolatuko dira profesionalentzat eta, ondoren, ikastetxeen txanda etorriko da. Bost egunez, ikasleek dantzan arituko dira denbora guztian, eta UNESCOren balio garrantzitsuenetako bat jarraituz, hau da, «egiten ikasten da» premisa jarraituz, ikasleek koreografia bat sortuko dute. Donostiako Larramendi ikastetxean grabatutako *Five Days to Dance* film arrakastatsuen bitartez eman da ezagutzera proiektu honen funtza.

SI SOMOS CAPACES DE BAILAR JUNTOS, PODEMOS VIVIR JUNTOS

Un experimento que, a través de la danza comunitaria, trata de cuestionar las diferencias entre los roles que se adoptan en la infancia, reforzar el sentimiento de pertenencia y fomentar la colaboración. El proyecto arrancará con sesiones formativas en torno a la danza comunitaria dirigidas a profesionales y, posteriormente, será el turno de los colegios. Durante cinco días, el alumnado dedicará todo su tiempo a la danza y, siguiendo uno de los valores más importantes de la UNESCO, la premisa de que «se aprende haciendo», las y los alumnos crearán una coreografía. La base de este proyecto se ha dado a conocer a través de la exitosa película *Five Days to Dance*, rodada en el centro escolar donostiarra Larramendi.

2016 | MARTXOA | DONOSTIA
MARZO | SAN SEBASTIÁN

Festival antibelicista

BAKEA
PAZ

Woody Guthrie, 1943. Al Aumuller/New York World-Telegram and the Sun.

MUSIKAREN ETA BESTE ARTE BATZUEN BITARTEZ BAKEA ALDARRIKATZEKO JAIALDIA

Gerraren aurkako jaialdia festival ludiko eta parte-hartzaile bat da eta 2016ko Aste Santuan gerren aurka borrokatzen diren eta bakearen alde lan egiten duten tokiko eta nazioarteko artistak, taldeak eta aktibistak bilduko ditu. Hiriko hainbat lekutan garatuko da ekimen hau eta, hari gidaria musika izango bada ere, diziplina gehiago nahastuko dira, besteak beste, arte eszenikoak eta zinema. Horrez gain, proiektuak herritarren hausnarketa sustatzeko eta bakearen hezkuntza indartzeko programa bat barne hartuko du. Jai-giroan ondo pasatzeko pentsatuta dago.

UN FESTIVAL PARA REIVINDICAR LA PAZ A TRAVÉS DE LA MÚSICA Y OTRAS ARTES

El *Festival antibelicista* es un festival lúdico y participativo que durante la Semana Santa de 2016 reunirá a artistas locales e internacionales, a colectivos y activistas que trabajan en la lucha contra las guerras y en favor de la paz. La iniciativa se celebrará en diversos puntos de la ciudad y, a pesar de que la música será el hilo conductor, también tendrán cabida otras disciplinas, como las artes escénicas y el cine. El proyecto contará, además, con un programa para impulsar la reflexión ciudadana y contribuir a la educación por la paz. Todo ello en un contexto festivo y concebido para el disfrute.

2015-2016 | DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Sin lugares, sin tiempo

ERAKUNDE TOTALEKIN LAN EGITEN DUTEN ELKARTE ETA ERAGILEAK

BAKEA
PAZ

Felix Morquecho.

ARTEA INTEGRAZIORAKO BITARTEKO GISA

«Arte suminduren» artxibo bat hartuko duen instalazio baten eskutik, gure gizarteetan bazterkeria/inklusioa sustatzen duten mekanismo sozialetan eta politikoe-tan sakontzeko gonbidapena egingo zaigu. Helburua zera da, erakunde totaletan (kartzelak, zentro psikiatrikoak, adingabeak sartzeko zentroak) dauden eta gizarte-
tean baztertuta dauden pertsonak sortzen dituzten adierazpen-lengoaiei gizarte-
tean eta kulturaren balio handiagoa ematea. Erakundeen barruan zein kanpoan esku
hartuko duen eta arte-adierazpen desberdinak baliatuko dituen lan kolektibo bati
esker, guztiok eraikitako eta guztiok barne hartzen gaituen gizarte bat izateko gain-
ditu behar ditugun zailtasunak ikusaraziko dira.

EL ARTE COMO HERRAMIENTA DE INTEGRACIÓN

Una instalación que acogerá un archivo de «arte irritado» invitará a profundizar en los mecanismos sociales y políticos de exclusión/inclusión con los que operan nuestras sociedades. El objetivo es contribuir a la valoración social y cultural de los lenguajes expresivos producidos en las instituciones totales (cárceles, centros psiquiátricos, centros de internamiento para menores) y por parte de personas que se encuentran en condiciones de exclusión social y de abandono. Un trabajo colectivo que actuará dentro y fuera de estas instituciones, que se apoyará en diferentes expresiones artísticas y visibilizará las dificultades que debemos afrontar para ser una sociedad construida por todos, en la que todos quepamos.

2015-2016 | DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Paredes que hablan

BAKEA
PAZ

Dani Blanco.

PARETAK ADIERAZPENERAKO MIHISE IREKI GISA

Tokiko zein nazioarteko artistek hiriko paretei bizia emango diete, horretarako paretak graffiti eta marrazkiekin apainduz eta askotariko esku-hartze artistikoak eginaz. Ekimen ireki bat da: artistek askatasun osoa edukiko dute apaindu beharreko horman esku hartzeko. 2015ean egingo da deialdia eta, aurkezten diren proposamenen artean batzuk aukeratu eta gero, landa-lana urte horretan egingo da. Sorkuntza-prozesu osoa dokumentatuko da eta teknologia berrietan gordeko. 2016an paretekin erlazionatutako jardueren programazioa garatuko da, egin diren lanen babespean.

LAS PAREDES COMO LIENZO ABIERTO A LA EXPRESIÓN

Las paredes de la ciudad cobrarán vida a través de artistas locales y de ámbito internacional que decorarán las paredes con graffitis y dibujos y llevarán a cabo intervenciones artísticas de diversa índole. Se trata de una iniciativa abierta: las y los artistas tendrán total libertad a la hora de intervenir en la pared que vayan a decorar. La convocatoria se abrirá en 2015 y, tras realizar una selección entre las propuestas presentadas, el trabajo de campo se llevará a cabo a lo largo de todo ese año. Todo el proceso de creación quedará documentado y recogido mediante las nuevas tecnologías. Ya en 2016, los muros contarán con una programación de actividades bajo el abrigo de las obras realizadas.

Tiras que aflojan

UPV/EHU

BAKEA
PAZ



Juan Carlos Eguillor. Euskadi Sioux.

GATAZKAK ETA DESADOSTASUNAK, HIRU HAMARKADA EGUNKARIETAKO BINETETAN

Proiektu honek xedetzat du Euskal Herriko egunkarietako zerrendatan azken 30 urteetan elkarbizitzan eragina izan duten gai politikoei emandako tratamendua aztertzea. UPV/EHURA atxikitako ikertalde baten ardura izango da ikerketa egitea eta, ondoren, erakusketa bat antolatuko da, gure iraganaren ezaguera kritikoa eta partekatua sustatzeko helburuarekin. Hainbat tailerrek eta hitzaldik osatutako programazioa eskainiko du erakusketak. 2016an hainbat unibertsitate campusetara eramango da erakusketa eta espazio bakoitzean bi hilabete inguru egongo da ikusgai.

CONFLICTOS Y DESENCUENTROS, TRES DÉCADAS A TRAVÉS DE LAS VIÑETAS DE LOS DIARIOS

Este proyecto consiste en analizar el tratamiento dado en las tiras de los diarios del País Vasco a los temas políticos que han afectado a la convivencia durante los últimos 30 años. Un grupo de investigación adscrito a la UPV/EHU será el responsable de realizar la investigación que, posteriormente, se plasmará en una exposición con el objetivo de impulsar el conocimiento crítico y compartido de nuestro pasado. La exposición contará con una programación conformada por talleres y conferencias. Durante 2016 recorrerá diversos campus universitarios, con una estancia aproximada de dos meses en cada espacio.

La milla de la paz

ETORKIZUNERA BEGIRA, IRAGANA AHAZTU GABE

Europako kultur hiriburu orotan antolatatu izan da Hiriburutzaren baliorik garrantzitsuenak barne hartzen dituen milia bateko ibilbide bat: 1,5 km, herritarrek zein bisitariak proiektuaren programa eta ideia nagusiak ezagutu ditzaten. Donostia 2016ren kasuan, *Bakearen milia* izena du.

Ibilbidean zehar, parte-hartzaileek bakeari buruz hausnartzeko aukera edukiko dute, hiru maila desberdinetan: lehenengo, Europako gatazkei helduko zaie, euren unibertsaltasunaren premisapean. Bigarren, iraganera begiratu da eta memoriari eta ordainari buruz hitz egingo da, gatazkek konpontzeko ezinbesteko testigantzen bitartez. Ibilbidearen azken zatia **BAKEAREN ITSASARGIAN** programatuko beste ekimen batzuekin lotuta egongo da, eta parte-hartzaileek elkarbizitza baketsu baten alde hartu dituzten konpromisoak, banakakoak zein taldekoak, irudikatuko dira bertan. Bidearen azken zatia pixkanaka-pixkanaka eraikiko da. Inoiz amaitzen ez den bakearen bidea izango da, beti landu, laboratu eta goldatu beharrekoa, eta helmuga bidea bera izango du.

MIRANDO AL FUTURO SIN OLVIDAR EL PASADO

Toda capital europea de la cultura cuenta con un recorrido de una milla que aúna los valores más importantes de su capitalidad; 1,5 km que ofrecen, tanto a la ciudadanía como a las personas visitantes, la oportunidad de conocer el programa y las principales ideas del proyecto. En San Sebastián 2016 se llamará *la Milla de la paz*.

El recorrido invitará a los vianantes a realizar una reflexión sobre la paz en tres planos distintos: el primero hará referencia a conflictos europeos sobre la premisa de su universalidad. La segunda parte invitará a mirar al pasado y aludirá a la memoria y la reparación a través de testimonios imprescindibles para resolver conflictos. El último tramo del recorrido estará conectado con otras iniciativas programadas en el **FARO DE LA PAZ** que representarán los compromisos, individuales y colectivos, adquiridos por los participantes en favor de una convivencia pacífica. La parte final del camino se irá construyendo poco a poco. Será el camino de la paz que no termina nunca; un camino que siempre se deberá trabajar, cultivar y labrar; una meta cuyo destino es el propio camino.

EUROTransit

EITB

EUROPAKO ELKARBIZITZARAKO BIDEA

Enbaxada ibiltari izango den autobus bat. Barruan, ikus-entzunezko lantalde batek ibilbide bat egingo du 2016an gatazkak ezagutu dituzten eta ezagutzen dituzten Europako hamabi hiritan zehar, hiri bakoitzean telebistarako dokumental bat egiteko. Kazetari ezagun bat arduratuko da programaren ekoizpenaz. Helburua da herrialdeak gaur egun bizi duen egoeraren erretratu bat egitea kazetaritzaren ikuspegitik, eta gatazkaren ondoriozko kultur ondarea azpimarratzea, ikuspegi artistiko batetik.

Aldi berean, *Eurotransit* enbaxadarekin *Europa Mashup* izeneko ikus-entzunezko lankidetzarako proiektua jarriko da martxan. Unitate mugikorak hamabi hirietako pertsonen testigantzak jasoko ditu eta Europako mosaiko bat sortuko du formatu digitalean. Amaitzeko, enbaxadak erredakzio ibiltari baten funtzioak beteko ditu, DSS2016EU Donostian ospatuko dela jakinarazteko. 2016ko urtarrilean emango dira proiektuaren lehen urratsak: hiri bakoitzean lurrean bertan irudikatuko dira autobusak egingo dituen geldialdiak, iragarki moduan. Enbaxada hilabete bat geratuko da norako bakoitzean.

UN RECORRIDO HACIA LA CONVIVENCIA EUROPEA

Un autobús que será embajada rodante. A bordo, un equipo audiovisual completará durante 2016 un itinerario por doce ciudades europeas que han sido y son testigo de conflictos para elaborar, en cada una de ellas, un documental televisivo. En la producción del programa participará un periodista conocido. El objetivo será retratar la situación actual del país desde el punto de vista periodístico y hacer énfasis, mediante un enfoque artístico, en el patrimonio cultural derivado del conflicto.

Con la embajada *Eurotransit*, además, se pondrá en marcha el proyecto de colaboración audiovisual denominado *Europa Mashup*. La unidad móvil recogerá testimonios de personas de las doce ciudades para crear un mosaico de Europa en formato digital. Finalmente, la embajada hará las veces de redacción itinerante en cada zona para dar noticia de la celebración de DSS2016EU en San Sebastián. En enero de 2016 se darán los primeros pasos del proyecto: las paradas que realizará el autobús se representarán sobre el terreno de cada ciudad, a modo de anuncio. La embajada se detendrá durante un mes en cada destino.



GEOGRAFIA EUOPARRA / GEOGRAFÍA EUROPEA

ONDARE NATURALA / PATRIMONIO NATURAL

FEMINISMOA / FEMINISMO

HIRIGINTZA / URBANISMO

ONGIZATEA / BIENESTAR

BIZITZA VIDA

BIZITZAREN ITSASARGIA

Dastamen-papilen bitartez denboran bidaiatzeko proposamenak, DSS2016EU lurraldean agerpen artistikoz betetako oinezko txango bat edo desiraren misterioei buruz hitz egiteko topaguneak. BIZITZAREN ITSASARGIko jardueren bidez, ingurune zainduago batean bizitza osasuntsuago, gizatiarrago eta osasungarriagoa lortzeko modu alternatiboak proposatzen dira. Itsasargi honetako proiektuak gizarteko eragile askorekin batera sortu dira, bizitza onaren zapoarekin eta biziera on baten eritimoarekin bat egiten duten ohituren inguruan gero eta nabarmenagoa den interesa aintzat hartzeko.

FARO DE LA VIDA

Propuestas como un viaje en el tiempo a través de las papilas gustativas, una excursión a pie por el territorio DSS2016EU regada de manifestaciones artísticas, o encuentros para hablar sobre el deseo. El FARO DE LA VIDA agrupa actividades que proponen modos alternativos para lograr una vida más sana, humanista y saludable en un entorno más cuidado. Los proyectos de este faro han sido ideados en colaboración con numerosos agentes sociales para atender el creciente interés por unos hábitos en sintonía con el sabor de una buena vida y el ritmo de una vida buena.

2016 | URTE OSOAN | DSS2016EU LURRALDEA
TODO EL AÑO | TERRITORIO DSS2016EU

Hirikilabs

TABAKALERA

Iñigo Ibañez.



IKASI ARTISAU DIGITALA IZATEN

Teknologia herritarren zerbitzura jartzeko laborategi bat, hori da *Hirikilabs*. *Do It Yourself* (zuk zeuk egin) filosofia jarraitzen du ekimen honek. Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroarekin batera diseinatu eta landu da eta xedetzat du abangoardiako bitartekoekin esperimentatzea eta teknologia berriak erabiltzea tailerren zein ikastaroen bitartez ezaguerak partekatzeko.

Laborategiko *Lantaldeez* gain, proiektuak *Hirikikas* eta *Hirikilabs plaza* lan-ildoak ditu. Lehenengoak komunikazioa eta sarea bezalako gaiei heltzen die. Gainera, 3D inprimaketa edo robotika bezalako tresna teknologikoen erabilera sustatzen du, era sortzaile batean aplikatu daitezkeen. Tailerretan skate bat edo konpost-ontzi bat sortzen ikas daitezke, adibidez, eta parte-hartzaile eta gonbidatuen artean ezagutzak partekatu egiten dira.

Amaitzeko, *Hirikilabs plaza* ildoak proposatzen du proiektuak. Elkartzeko espazio batean datza, non proiektuak modu autonomoan proposatu eta praktikara eraman daitezkeen. *Maker* mugimendura irekitako ate bat.

APRENDER A SER ARTESANOS DIGITALES

Un laboratorio para poner la tecnología al servicio de la ciudadanía, eso es *Hirikilabs*. Bajo la filosofía *Do It Yourself* (hazlo tú mismo), el fin de la iniciativa, ideada junto al Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera, es la experimentación con herramientas de vanguardia y la puesta en práctica de nuevas tecnologías para compartir conocimiento por medio de talleres y cursos.

Además de los *Grupos de trabajo* del laboratorio, el proyecto presenta las líneas *Hirikikas* e *Hirikilabs plaza*. La primera aborda temáticas de comunicación y redes. Además, fomenta el uso de herramientas tecnológicas como la impresión 3D o la robótica para aplicarlas de una manera creativa. Durante los talleres, en los que se podrá aprender, por ejemplo, a fabricar un monopatín o a construir una compostera, se compartirán conocimientos entre participantes e invitados.

La segunda línea, *Hirikilabs plaza*, es un espacio de encuentro en el que se pueden proponer y poner en práctica proyectos de manera autónoma. Una puerta abierta al movimiento *maker*.

2016

MARTXOA-EKAINA
MARZO-JUNIO

DSS2016EU LURRALDEA
TERRITORIO DSS2016EU

DSSirez

Imigo Ibañez.

DESIOAK, INTIMITATETIK GOGOETA PUBLIKORA

Desiraren karabana, Ligodromoa, Piknik erotikoa, Karnalbalak. DSSirez proiektuan dauden ekimenak dira hauek, eta desiraren eta fantasia erotikoen arloan pribatua den horren mugak lausotzera zuzenduta daude. Iritziak eta nahiak konpartitzeko aukera eskainiko dute, seriotasun gutxiagoko eta gozamenerako pentsatutako giro batean.

Proiektua auzo guztietara hedatuko da *Desiraren karabanaren* ibilbidearekin. Ekimen honek bost zentzuak estimulatzeko helburua du eta, horretarako, hainbat kontaketa, irudi eta abestik hiriko kartografia erotikoa marraztuko du.

Ilido berean, *Ligodromoak* pertsonen arteko harremanetarako espazioak zabalduko ditu, era inklusibo batean, eta erotismoaren eta sentsualitatearen dimentsioei arreta jarriko die, baita sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuari erreparatuko ere. Ekimen hauekin batera, piknik koloretsu baten testuinguruan probakazioaren inguruko gogoeta egitera eramango gaituen *Piknik erotikoa* izango dugu. Azkenik, *Karnalbal* jarduerak moztarokak desinhibitzeko duen ahalmena aprobetxatuko du, fantasia bizitza osasungarri baten seinale gisa estimulatzeko.

EL DESEO, DE LA INTIMIDAD A LA REFLEXIÓN PÚBLICA


La Caravana del deseo, el Ligódromo, el Picnic erótico, los Carnalvales. Iniciativas enmarcadas en el proyecto DSSirez dirigidas a difuminar los límites de lo privado en el ámbito del deseo y las fantasías eróticas. Oportunidades para compartir opiniones y gustos en un ambiente despojado de gravedad y proclive al divertimento.

El proyecto cubrirá todos los barrios con el itinerario de la *Caravana del deseo*, pensada para estimular los cinco sentidos a través de relatos, imágenes y canciones que dibujarán una cartografía erótica de la ciudad.

En la misma línea, el *Ligódromo* abrirá espacios para la relación entre personas, de manera inclusiva, con atención a las dimensiones del erotismo y la sensualidad y respeto a la diversidad de identidades sexuales.

A estas iniciativas se sumarán el *Picnic erótico*, orientado a la reflexión en torno a la provocación durante un picnic colorista, y el *Carnalval*, que aprovechará el potencial de desinhibición del disfraz para estimular la fantasía como síntoma de una vida sana.

Time Machine Soup



JOLASERAKO HAPPENING BAT DENBORAN BARRENA BIDAIATZEKO

Time machine honen motorrak zopa erabiltzen du erregai gisa: gustuaren zentzua komunikazio-bide gisa baliatuz, bidaia bat proposatzen digu gastronomia, literatura, antropologia eta arte eszenikoetan barrena. Festa honetako parte-hartzaileek hamabi zopa historiko dastatuko dituzte, erlojuaren ordu bakoitzeko bana: gaur egungo zopa industrialetik hasi eta jatorrizko zopara arte, Europaren historiaki hainbat une nagusi irudikatuko dira zapoaren eta jakintzaren bidez. Helburua zera da: denboran atzera egitea gastronomiaren oroipen-efektu indartsua baliatuz. Ekimena diziplina anitzeko *performance* batean islatuko da eta, lehenengo geltokia Donostian izan ondoren, Europako beste hiri batzuetara zabalduko da.

HAPPENING LÚDICO PARA VIAJAR EN EL TIEMPO

Esta *time machine* tiene un motor que utiliza la sopa como combustible: con el sentido del gusto como vehículo de comunicación principal, propone un viaje al pasado a través de la gastronomía, la literatura, la antropología y las artes escénicas. Los participantes en esta fiesta degustarán doce sopas históricas, una por cada hora que marca el reloj: desde la industrial de hoy en día hasta la sopa primordial, momentos clave de la historia de Europa quedarán retratados en esta paleta de sabor y de saber. El objetivo es provocar una regresión en el tiempo gracias a la experiencia sensorial poderosamente evocativa de la gastronomía. La iniciativa se materializará en forma de *performance* multidisciplinar que, tras una primera estancia en San Sebastián, se extenderá a diversas ciudades de Europa.

2016 bidea

BIZITZA
VIDA

Dani Blanco.

PAISAIA, ARTEA ETA KULTURA

Gipuzkoa, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Iparraldeko paisaia naturaletan barrena diseinatutako ibilbidea, gure ondare ekologikoa ezagutzeko. Jarduerak mendibilietarako ibilbide bat utzi nahi du etorkizuneko ondare gisa. 2016an egingo da aurkezpena, adierazpen artistikoz betea, bizitza osasungarria eta adierazpen artistiko-kulturala elkartzen dituen apustu baten eskutik. 2016 Bidea 32 etapek osatzen dute eta mendiaz gozatzeko proposamen berritzaile bat dela esan daiteke. Martxotik urrira bitartean txangoak antolatuko dira igandeetan (txango bat etapa bakoitzeko). Irteera horietan, txangozaleek eta kultur zaletuek kontzertu, ikuskizun eta erakusketez gozatu dute, baita instalazio artistikoez ere, ingurune naturalean bertan.

PAISAJE, ARTE Y CULTURA

Un itinerario diseñado para el descubrimiento ecológico por paisajes naturales de Gipuzkoa, Navarra, Araba, Bizkaia e Iparralde. El trazado consolida una ruta senderista como legado para el futuro, que en 2016 se presentará cuajada de manifestaciones artísticas en una apuesta que fusiona la vida saludable con la expresión artístico-cultural. 2016 bidea, que consiste en un recorrido de 32 etapas, constituye una novedosa propuesta para disfrutar el monte. Entre marzo y octubre se organizarán excursiones cada domingo, una por cada etapa. Durante estas salidas, senderistas y aficionados a la cultura podrán disfrutar de conciertos, espectáculos, exposiciones e incluso de instalaciones artísticas en un entorno natural.

Winter Solstice Call



BIZITZA
VIDA

Gorka Bravo.

ARGI BERRIA DONOSTIAREN GAINEAN

Neguko solstizioarekin batera, urteko garairik ilunena iristean, hiriaren zati emblematikoenaren argien itxura aldatu egingo da, herritarrak eraginkortasun energetikoari eta eskura ditugun baliabideen aprobetxamenduari buruz hausnartzera animatzeko. Hausnarketa hori artistikoki gauzatuko da, Kursaaen eta Haizearen orraziaren arteko espazioan kokatuko diren instalazioen bitartez. Instalazio horiek aipatutako espazioaren argiztapena sotilki aldatuko dute. Instalazioak kokatu aurretik, hezkuntza-tailerrak egingo dira, argiztapen baliabideen propietateak eta argiztapen arkitektonikoko diseinuaren teknika batzuk ikasteko. Era berean, argia baliatuz espazioak modu sortzailean eraldatzeko teknikak erakutsiko dira.

UNA NUEVA LUZ SOBRE SAN SEBASTIÁN

Coincidiendo con el solsticio de invierno, la época más oscura del año, se alterará la apariencia lumínica de la parte más emblemática de la ciudad para invitar a la reflexión sobre la eficiencia energética y el aprovechamiento de recursos existentes. Esta reflexión se materializará de manera artística mediante diferentes instalaciones que modificarán, de manera más o menos sutil, la iluminación del espacio entre el Kursaal y el Peine del viento. Previamente, tendrá lugar una serie de talleres educativos para aprender las propiedades de los diferentes recursos de iluminación y algunas técnicas de diseño de iluminación arquitectónica. Se mostrarán, asimismo, técnicas para transformar espacios de manera creativa por medio de la luz.

(K)idea

HUB DONOSTIA

BESTELAB

Iñigo Ibañez.

PROIEKTUAK TALDEAN ERAIKI

Ideiak konpartitzea eta garatzeko kideak bilatzea, sorkuntzarako eredu eta mekanismo ugariren bitartez elkarrengandik ikasita; horra hor *(K)idearen* erronka. Egitasmoak elkargune fisiko eta birtualak sustatzen ditu, taldean ideiak, baliabideak eta tresnak konpartitu eta proiektuak sortu zein hobetzeko. Alde batetik, ildo hezitzaile bat izango du, pertsonak trebatzeko proiektuen eraketa, diseinu eta garapenerako. Bestetik, taldeko sorkuntzarako ildoak ideiak eta proiektuak modu kolektiboan egindako ekarpenekin aberasteko kanalak sustatuko ditu. 2015 eta 2016 urteetan jendaurreko 4 saio egingo dira gutxienez, horietako bi Donostian. Plataforma digital bat ekimenean parte hartu nahi dutenen bilgune birtuala izango da.

CONSTRUIR PROYECTOS COLECTIVAMENTE

Compartir ideas y aprender unos de otros mediante diferentes modelos y mecanismos de co-creación. Esa es la apuesta de *(K)idea*, un proyecto que promueve espacios de encuentro físicos y virtuales para compartir ideas, recursos y herramientas, con el fin de crear y mejorar proyectos. En su vertiente formativa, el objetivo será capacitar a las personas para la gestación, diseño y desarrollo de proyectos. Su vertiente de creación colectiva promoverá canales para el enriquecimiento de las ideas y los proyectos presentados. Durante 2015 y 2016 tendrán lugar al menos 4 jornadas presenciales, dos de ellas en San Sebastián. Una plataforma digital será el punto de encuentro virtual para quienes se sumen a esta iniciativa.

2016

EKAINA-IRAILA
JUNIO-SEPTIEMBRE

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zubideak

BIZITZA
VIDA

Iñigo Ibañez.

EUROPA EZAGUTU DONOSTIATIK ATERA GABE

Hiriko zubiek Donostia eta Europako beste hiri batzuk lotuko dituzte 2016an, besteak beste kulturak, balioak eta gastronomiak ezagutzera emateko baina, aldi berean, Europako herrialdeen arteko mugak ikusarazteko. Sei asteburutan itxi egingo da Urumeako bi ertzak komunikatzen dituzten zubietako bat, aukeratutako Europako hirietako bat irudikatzen. Asteburu oro zubiak elkargune bihurtzeko pentsatu den jardueren programa zabal bat eskainiko da. Ekimen hau hiritik atera gabe beste lurralde batzuetako errealitatea bertatik bertara ezagutzeko eta sentitzeko diseinatu da.

DESCUBRIR EUROPA SIN SALIR DE SAN SEBASTIÁN

Los puentes de la ciudad conectarán San Sebastián en el año 2016 con otras ciudades de Europa para dar a conocer culturas, valores o incluso gastronomías ajenas, pero también para visibilizar las fronteras que existen entre los países de Europa. Durante seis fines de semana se procederá al cierre de uno de los puentes que unen las dos riberas del Urumea para recrear una de las ciudades europeas seleccionadas. Cada fin de semana contará con un completo programa de actividades pensadas para convertir los puentes en un punto de encuentro. Una iniciativa diseñada para conocer y sentir de primera mano la realidad de otros territorios sin salir de la ciudad.

2015-2016 | DSS2016EU LURRALDEA
TERRITORIO DSS2016EU

San Juan baleontzia

ALBAOLA ITSAS FAKTORIA

BIZITZA
VIDA

Mendi Urruzuno.

EUSKAL ITSAS KULTURAREN BALIOA ETA HERENTZIA

Pasaiaiko badiako Ondartxo ontziolan dagoen Albaola Faktoria erronka pozgarri bati ekiten ari zaio 2013 urte hasieraz geroztik: San Juan baleontziaren, 1568an kanadar uretan hondoratu zen euskal ontziaren, erreplika bat sortzea. Helburua zera da, itsas sektorearen alde taldean lan egiten zuen eskualde baten iragana gogoratzea. San Juan baleontzia UNESCOren urpeko ondarearen sinboloa da, eta bere eraikuntza-prozesua itsas kulturaren oso errotuta dauden artisau-lan eta -tradizioak berreskuratzeko era erakargarri bat da. Nafarroako Sakanako haritzak moztetik hasi eta ontzia uretaratu arte, prozesuak mendetan gordetako hainbat jakintza emango du ezagutzera.

VALOR Y HERENCIA DE LA CULTURA MARÍTIMA VASCA

La Factoría Albaola, situada en el astillero Ondartxo de la bahía de Pasajes, alberga desde principios de 2013 un reto ilusionante: la construcción de una réplica del ballenero San Juan, el navío vasco hundido en aguas canadienses en 1568, con el fin de recordar el pasado de una región dedicada a trabajar de forma colectiva en apoyo al sector naval. La nao San Juan es el símbolo del patrimonio subacuático de la UNESCO y su proceso de construcción se presenta como una forma atractiva para recuperar labores artesanas y tradiciones fuertemente arraigadas a la cultura marítima. Desde la tala inicial de los robles de la Sakana navarra hasta la botadura de la nave, el proceso irá poco a poco revelando un conjunto de saberes guardado durante siglos.

Diálogos europeos

GLOBERNANCE | SAN TELMO MUSEOA

EZTABAIDA IREKIAK HERRITARRAK GAI EUROPARRETAN INPLIKATZEKO

Europar elkarrizketak herritarrek parte hartzeko topagune irekien ziklo bat da. Bertaratzen diren pertsonak Europako gaiei buruz hitz egingo dute hainbat aditurekin, adibidez: Jose Manuel Durão Barroso, Europako Batzordeko lehendakari ohia; Antonio Vitorino, Europako justizia-komisario ohia; Fausto Pocar, Nazioarteko Zigor Arloko Auzitegiko magistratua; edo Saskia Sassen, Zeelanda Berriko soziologoa, beste batzuen artean.

Aztertuko diren gaien artean honako hauek aipa daitezke: justizia, emakumearen errealitatea, giza eskubideak, multinazionalen inpak-tua, ingurumena, Europako gizarteen kultur eraldaketa, eta abar. Ekimen honek helburutzat du eztabaidarako foro bat sortzea hizlarien eta herritarren artean; gainera, sare sozialen bitartez parte hartzeko aukera eskainiko da. Bestalde, saio bakoitzean poeta bat gonbidatuko da poema sozialak sor ditzan, topagunean landutako gaia oinarritzat hartuta. Zikloa amaitzean, konposizio horietako batzuk entzuteko aukera emango duen ekitaldi bat antolatuko da.

DEBATES ABIERTOS PARA IMPLICAR A LA POBLACIÓN EN ASUNTOS EUROPEOS

Diálogos europeos es un ciclo de encuentros ciudadanos abiertos a la participación en los que se tendrá la oportunidad de conversar sobre asuntos europeos con personalidades de la talla de Jose Manuel Durão Barroso, expresidente de la Comisión Europea; Antonio Vitorino, excomisario europeo de justicia; Fausto Pocar, magistrado del Tribunal Penal Internacional; o Saskia Sassen, socióloga neerlandesa, entre otros.

La justicia, la realidad de la mujer, los derechos humanos, el impacto de las multinacionales, el medio ambiente o la transformación cultural de las sociedades de Europa serán algunos de los temas tratados. El objetivo de la iniciativa es abrir un foro de debate entre conferenciantes y ciudadanía, que también podrá participar a través de las redes sociales. Además, cada sesión contará con un poeta invitado que creará poemas de corte social a partir de la temática tratada en el encuentro. Al final del ciclo se ofrecerá un recital en el que se podrán escuchar algunas de estas composiciones.

Biziz

EUROPAN PEDALEI ERAGITEN, BIZITZA OSPATZEKO

Irteera hiri desberdinetatik egingo da baina Donostia izango da guztien helmuga. *Biziz* ekimenaren baitan, bost gaikako ibilbide egingo dira, bizikleta batek bultzatutako ibilgailuetan, Europako hainbat herrialdetan barrena, BIZITZAREN ITSASARGIAREKIN harremana duten gaien inguruan: ongizatea, bioaniztasuna, gastronomia eta bere idiosinkrasia, gorputza eta osasuna edo arkitektura.

2016ko ekainean hasiko da *Biziz* proiektua, bost ibilgailuek dagoen bideari ekiten. «Bizikleta» bakoitzean enbaxadore-talde batek bidaiatuko du eta bidaiak dokumentatzea eta esperientzia komunikazio-kanal desberdinen bitartez helaraztea izango dira bere zereginak: bloga, prentsa, sare sozialak, eta abar.


Lau hilabete pasa ostean eta 2.000 - 3.000 kilometro inguru atzean utzi eta gero, bost taldeak irailan iritsiko dira hirira, Mugikortasunaren Europako Astea dela eta. Bost ibilbideetan barrena bizitako esperientziak eta hainbat herrirekin egindako harremanek 2016 Gunean egingo den erakusketa bat osatzeko balioko dute.

PEDALEANDO EUROPA PARA CELEBRAR LA VIDA

Desde distintos puntos de partida y con San Sebastián como destino, en el marco de la iniciativa *Biziz* se realizarán cinco recorridos temáticos por países europeos en vehículos impulsados por una bicicleta en torno a temas relacionados con el FARO DE LA VIDA como el bienestar, la biodiversidad, la gastronomía y su idiosincrasia, el cuerpo y la salud o la arquitectura.

El proyecto *Biziz* comenzará en junio de 2016, cuando los cinco vehículos emprendan su trayecto. En cada «bicicleta» viajará un equipo de embajadores con la misión de documentar el viaje y compartir la experiencia a través de distintos canales de comunicación: blog, prensa, redes sociales...

Tras cuatro meses y 2.000 - 3.000 kilómetros de recorrido a sus espaldas, los cinco equipos llegarán a la ciudad en septiembre con ocasión de la Semana Europea de la Movilidad. Las experiencias vividas y las conexiones establecidas con las diversas poblaciones a lo largo de los cinco recorridos servirán para realizar una exposición en el Espacio 2016.



LENGOIA ARTISTIKOAK / LENGUAJES ARTÍSTICOS
KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN
TRANSMISIOA / TRANSMISIÓN
ADIERAZPENA / EXPRESIÓN
HIZKUNTZAK / LENGUAS

AHOTSAK VOCES

AHOTSEN ITSASARGIA

Shakespeareren lan bat inoiz antzeztu ez den moduan bizitzea, baso lilugarri baten barruan bizi daitekeen amets baten eskutik, edo Europako 20.000 gazterekin inguratzea, musikaren bitartez elkartuta eta elkarbizitza soinu-banda gisa hartuta, itsasargi honen bi adibide besterik ez dira. Adierazpen artistikoek komunikatzeko, galdetzeko eta hunkitzeko duten gaitasuna azpimarratu nahi du itsasargi honek. Bere proiektuetan ahotsa da bizitzaren eta gizartearen arteko lotune nagusia, baita banakotasunaren eta taldearen artekoa ere, adierazi, transmititu eta komunikatzeko balio duena.

FARO DE LAS VOCES

Vivir una obra de Shakespeare como nunca antes se ha representado, habiéndose rodeado de un bosque mágico, o rodearse de más de 20.000 jóvenes de Europa con la música como vínculo y la convivencia como banda sonora. Son solo dos ejemplos de las propuestas del FARO DE LAS VOCES, que subraya la capacidad de las manifestaciones artísticas para comunicar, interrogar y emocionar. Las iniciativas de este faro entienden la voz como el engranaje perfecto entre la vida y la sociedad, como el nexo entre lo individual y lo colectivo, que sirve para expresarse, transmitir y comunicarse.

2016

APIRILA-MAIATZA
ABRIL-MAYO

DSS2016EU LURRALDEA
TERRITORIO DSS2016EU

Emusik

ASEMNA - ASOCIACIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA DE NAVARRA
DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

EHME - EUSKAL HERRIKO MUSIKA-ESKOLEN ELKARTEA

EMU - EUROPEAN MUSIC SCHOOL UNION

UEMYD - UNIÓN DE ESCUELAS DE MÚSICA Y DANZA

Dani Blanco.

NOLA ENTZUTEN DIRA 20.000 INSTRUMENTU BATERA?

Donostian antolatuko da, *Emusik* ekimenari esker, musikari gehien aldi berean jotzen elkartuko dituen kontzertua; Europan ez da inoiz horrelakorik antolatu. 26 herrialdetako 20.000 musikaririk pieza klasikoekin eta musika modernoarekin osatutako musika-errepertorio bat joko dute aldi berean, baita ekimen honetarako berriaz sortutako *Emusik 2016* abestia ere. Horrela emango zaio hasiera Europako Musika Eskolen Elkarteak (EMU) bi edo hiru urtean behin antolatzen duen musika-eskolen jaialdiari. Jaialdiaren baitan mila kontzertu baino gehiago eskainiko dira lurralde osoan, baita Errioxa eta Kantabriako zenbait tokitan ere. 70 musika-eskolek parte hartuko dute antolakuntzan eta askotariko musika-estilotako lanak eskainiko dira, konpositore klasikoen lanak eta soinu garaikideenak barne hartuta. Musika elkarbizitzarako tresna dela azpimarratzen du proiektuak, eta horren aldeko apustua egiten du. Aniztasuna eta lankidetzeta oinarri dituela landu den ekimen bat da eta aukera paregabea eskaintzen du kulturen eta herrialdeen artean ezaguerak eta esperientziak trukatzeko.

¿CÓMO SUENAN 20.000 INSTRUMENTOS A LA VEZ?

El concierto con más músicos tocando simultáneamente jamás celebrado en Europa tendrá lugar en San Sebastián, fruto de la iniciativa *Emusik*. 20.000 músicos provenientes de 26 países interpretarán al unísono un repertorio musical que abarca piezas clásicas y música moderna, además de la canción *Emusik 2016*, creada expresamente para la ocasión. Este será el punto de partida del festival de escuelas de música que cada dos o tres años lleva a cabo EMU, la Unión Europea de Escuelas de Música. Una vez iniciado el festival se ofrecerán más de mil conciertos por todo el territorio, y también en La Rioja y Cantabria. Estas actuaciones, coorganizadas por 70 escuelas de música, abarcarán diversos estilos musicales, tanto piezas de compositores clásicos como los sonidos más actuales.

El proyecto apuesta por la música como instrumento para la convivencia, tiene la diversidad y la colaboración como bases y ofrece una oportunidad inigualable para el intercambio de conocimiento y experiencias entre culturas y países.

Sueño de una noche de verano

WILLIAM SHAKESPEAREREN LAN HILEZKORRAREN ANTZEZPEN PAREGABEA

William Shakespeare hil zela 400. urteurrena izango den honetan, bere lan adierazgarrienetako baten, *Uda-gau bateko ametsaren*, eszenatoki bihurtuko da Cristina Enea parkea. Basorik aproposena ikus-entzuleak obran modu berezi batean murgiltzeko pentsatu den antzezpene honetarako.

Antzerkia, dantza eta musika elkartzen dituen ikuskizun bat da eta publikoari parte hartzeko aukera eskaintzen dio, izan ere, ezteietako bazkariko gonbidatuak izango baitira bertaratuko direnak, emanaldia garatzeko testuinguruan. Ekainaren 21ean izango da estreinaldia, udako solstizioaren hasierarekin batera, hain zuzen ere lana garatzen den urteko sasoi liluragarria iristean, eta hilabete batez egunero antzeztuko da. Arratsaldero, 300 pertsona inguru gonbidatuko dira eztei aurreko agape batean parte hartzera, eta jai-giroan, behin gaua iristean, antzerkia, musika eta dantza elkartzen dituen kontakizun ibiltari batean murgilduko dira, Cristina Eneako baso ederreko bazter eta bidexka harrigarrietan barna.

Uda-gau bateko ametsa AHOTSEN ITSASARGIAN diseinatutako proposamenaren proiektu garrantzitsuenetako bat da. Asmo handiko ekimena da, letra unibertsalen lan kanoniko baten bitartez emozioak eragiteko, esperientzia multisentsorial bat eskaintzeko eta antzerki klasikoenera atea irekitzeko pentsatua.

Iñaki Rikarte eta Fernando Bernués dira zuzendariak eta Patxo Telleriak egin du egokitzapena. Juan Gartzia arduratu da jatorrizko lana euskarara itzultzeaz.

UNA REPRESENTACIÓN ÚNICA DE LA OBRA INMORTAL DE WILLIAM SHAKESPEARE

Con motivo del 400 aniversario de la muerte de William Shakespeare, el parque Cristina Enea será escenario de una de sus obras más representativas: *Sueño de una noche de verano*. El bosque más adecuado para acoger una recreación, que ha sido pensada para sumergir al público en la obra de un modo único.

Este espectáculo, que fusiona teatro, danza y música, tiende la mano a la participación del público, que encarnará el papel de los invitados del banquete nupcial que sirve de contexto al desarrollo de la función. Se estrenará el 21 de junio, con el comienzo del solsticio de verano, el mágico periodo en el que transcurre la obra, y se representará diariamente durante un mes. Cada atardecer, 300 personas serán invitadas a participar en un ágape pre-nupcial que servirá de pretexto festivo para, una vez caída la noche, adentrarse en un relato itinerante que fusionará teatro, música y danza por los sorprendentes rincones y senderos del bosque mágico de Cristina Enea.

Sueño de una noche de verano es uno de los proyectos principales de la propuesta diseñada en el FARO DE LAS VOCES. Una ambiciosa iniciativa concebida para emocionar, ofrecer una experiencia multisensorial y abrir una puerta al teatro más clásico a través de una obra canónica de las letras universales.

Dirigida por Iñaki Rikarte y Fernando Bernués y adaptada por Patxo Tellería, la obra original ha sido traducida al euskera por Juan Gartzia.

2016 | MAIATZA 28 | UZTAILA 4 | DSS2016EU LURRALDEA
MAYO JUNIO TERRITORIO DSS2016EU

World Puppetry Festival

TOPIC - TOLOSAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO ZENTROA
UNIMA - UNION INTERNATIONALE DE LA MARIONNETTE

AHOTSAK
VOCES

Iñigo Royo.

TXOTXONGILOEN MUNDUKO JAIALDIAK DONOSTIA AUKERATU DU

Azken edizioak Perth (Australia) eta Chengdu (Txina) hirietan antolatu eta gero, 2016an Donostian eta Tolosan izango da Txotxongiloen Munduko Jaialdia. Maiatzaren 28an hasiko da jaialdia, aire zabalean eskainiko den ikuskizun batekin, eta programa zabala eskainiko du, antzokien barruan zein kanpoan. Proiektuaren baitan sinposio bat antolatzea aurreikusi da, mundu osoko profesionalen parte-hartzearekin. Bestalde, herritarrek aukera edukiko dute nazioartean izen handia duten hogei bat konpainiaren lanik onenen antzezenak ikusteko. Ekimen honek helburutzat du txotxongiloen irudiari garrantzia ematea eta helduengana iristea, txotxongiloak ez baitira umeentzat bakarrik.

EL FESTIVAL MUNDIAL DE MARIONETAS ELIGE SAN SEBASTIÁN

Tras visitar Perth (Australia) y Chengdú (China) en sus últimas ediciones, el Festival Mundial de Marionetas se celebrará entre San Sebastián y Tolosa en 2016. El festival arrancará el 28 de mayo con un espectáculo al aire libre y contará con un amplio programa dentro y fuera de los teatros. El proyecto acogerá un simposio que reunirá a profesionales procedentes de todo el mundo. Además, los ciudadanos podrán asistir a la representación de los mejores trabajos de una veintena de compañías de prestigio internacional. La iniciativa tiene como objetivo ofrecer visibilidad a los títeres y llegar al público adulto para reivindicar que las marionetas no son solo para los más pequeños.

2016 | MAIATZA | DONOSTIA
MAYO | SAN SEBASTIÁN

Olatu Talka

DONOSTIA KULTURA

AHOTSAK
VOCES

Dani Blanco.

HERRITARREN ENERGIA-EZTANDA

2010ean sortu zen *Olatu Talka*, eta ez ditu urte gehiegi behar izan jaialdi ezagun eta sendoa bihurtzeko. Ohiko bideak baztertu eta kulturaz gozatzeko modu berriak proposatzen ditu ekimen honek. Diziplina guztiek dute lekua jaialdian: musika, antzerkia, gastronomia, teknologia... Herritarren parte-hartzea da *Olatu Talkaren* eragile nagusia, izan ere, hiriko eta inguruko elkarteek eta eragileek egindako proposamenekin osatzen baita programa. Jaialdi honen helburuen artean, profesionalen eta amateurren arteko lankidetzaren lortzea eta ezohiko hiri-espazioen erabilera azpimarra daitezke.

EXPLOSIÓN DE ENERGÍA CIUDADANA

Olatu Talka nació en 2010 y no ha necesitado muchas ediciones para convertirse en el consolidado festival que es hoy en día. La iniciativa huye de los caminos tradicionales y propone nuevas formas de disfrutar de la cultura. Música, teatro, gastronomía, deporte, tecnología... todas las disciplinas tienen cabida en el festival. La participación ciudadana es el motor principal de este proyecto, ya que el programa se organiza con las propuestas de las asociaciones y agentes de la ciudad y de sus alrededores. La colaboración entre profesionales y amateurs y la utilización de espacios urbanos inusuales son algunos de los objetivos del festival.

In Other Words

DONOSTIA KULTURA | FORAS NA GAILGE, IRLANDA | LITTFEST, SUECIA
X-OP-EXCHANGE OF ART OPERATORS AND PROUDCERS, ESLOVENIA
YOUTH FORUM NA MLADI, MAZEDONIA

AHOTSAK
VOCES

Gorka Bravo.

HIZKUNTZA GUTXITUETAN LITERATURA-SORKUNTZA LAGUNTZEA

Ekimen honen helburua da hizkuntza gutxituetan sortzen duten Europako idazleen sare bat sortzea. Irlandak, Esloveniak, Suediak, Mazedoniak eta Euskal Herriak proiektuarekin bat egin dute. Hain zuzen, idazleen egonaldia antolatzean datza proiektua, kulturen arteko lankidetzaz sustatzeko. 2016an egingo da lehen trukea eta konexio gehiago egingo dira 2019ra arte. Norako bakoitzak bi artista hartuko eta bidaliko ditu urtean. Idazleek lanak pentsatu beharko dituzte eta harrera egin dien herrialdeko kulturearekin eta literaturarekin erlazionatutako bi jarduerak publiko egingo dituzte, gutxienez. Testu guztiak plataforma digital batean argitaratuko dira.

APOYO A LA CREACIÓN LITERARIA EN LENGUAS MINORIZADAS

Esta iniciativa tiene como objetivo generar una red de escritores europeos que crean en idiomas minorizados. Irlanda, Eslovenia, Suecia, Macedonia y el País Vasco se han unido en el proyecto, que consiste en acoger estancias de escritores para fomentar la colaboración cultural. El primer intercambio se llevará a cabo en 2016, aunque seguirán produciéndose conexiones hasta 2019. Cada destino enviará y acogerá anualmente a dos artistas. El cometido de las y los escritores consistirá en concebir obras y realizar al menos dos actividades públicas relacionadas con la cultura y la literatura del país anfitrión. Todos los textos se publicarán en una plataforma digital.

Corners of Europe

ARTS COUNCIL OF NORTHERN IRELAND, BELFAST


CITY CULTURE INSTITUTE, GDANSK | DOKUFEST, PRIZREN

DRUGO MORE, RIJEKA | EXODOS, LJUBLJANA

INTERCULT, STOCKHOLM | ISIS ARTS, NEWCASTLE

POGON, ZAGREB | REX, BELGRADE

HAZITEGIAK



Helena Wikström.

EUROPAKO ERTZETAKO ARTEA ELKAR KONEXIOAN

Corners of Europe Europa inguruko sortzaileen sarea da. Proiektu honek Europako «bazerretako» sortzaileak harremanetan jartzen ditu, diziplina eta nazionalitate desberdinetako artisten artean lankidetzaz proiektuak sustatzeko helburuarekin. Sei euskal artistek (Juan Aizpitarte, Beatriz Churruca, Ixone Ormaetxe, Borja Ruiz, Asier Zabaleta eta Joseba Irazoki) parte hartzen dute proiektuan, Europako beste 50 artista baino gehiagorekin batera. Proiektuak ohiko testuinguruetatik kanpo eramanen ditu artistak, Europako bazterretan esku har dezaten eta, ondoren, izandako esperientziak kontinentearen gainerakoari helaraz diezazkioten, parte-hartzaileek lankidetzan sortutako lan berrien edo diziplina anitzeko ekintzen bitartez.

EL ARTE DE LA PERIFERIA EUROPEA ENTRA EN CONEXIÓN

Corners of Europe es la red de creadores de la periferia europea. El proyecto pone en contacto a creadores de los «rincones» de Europa con el fin de fomentar proyectos de colaboración entre artistas de diferentes disciplinas y nacionalidades. Seis artistas vascos (Juan Aizpitarte, Beatriz Churruca, Ixone Ormaetxe, Borja Ruiz, Asier Zabaleta y Joseba Irazoki) participan junto con más de 50 artistas europeos. El proyecto traslada a los artistas fuera de sus contextos habituales para que intervengan en rincones de Europa y luego trasladen estas experiencias al resto del continente, a través de nuevas obras o acciones multidisciplinares, creadas entre los participantes de forma colaborativa.

Europa bat-batean

BERTSOZALE ELKARTEA | MINTZOLA FUNDAZIOA

AHOTSAK
VOCES

Alberto Elozegi.

AHOZKO KULTURA ETA INPROBISATZAILEEN EUROPAKO TOPAGUNEA

Europako inprobisatzaile onenak elkartzeko helburuari helduta, Europako kulture-tako ahozko tradizioei buruzko topagune bat antolatuko da Donostian. UPV/EHUREN Udako ikastaroetan eskainiko diren hitzaldietan eta kultur ekimen publikoetan gauzatuko dira aipatutako topagunak. Lau gai landuko dira ikuspegi akademikotik: ahozko transmisioa belaunaldi batetik bestera, ahozkotasunak hizkuntza gutxituen testuinguruetan duen erlazio estua, generoaren ikuspegia eta zientzian eta teknologian aplikatutako ikerketak. 2015ean aldeztu aurretiko bilerak egingo dira, Europako inprobisatzaileen arteko harremanak indartzeko eta ahozkotasuna beste lurralde batzuetara zabaltzeko.

CULTURA ORAL Y ENCUENTRO EUROPEO DE IMPROVISADORES

Con el objetivo de reunir a las y los mejores improvisadores de Europa y conocer sus prácticas, San Sebastián albergará un encuentro en torno a las tradiciones orales de las culturas europeas. Los encuentros se materializarán en conferencias en los Cursos de verano de la UPV/EHU y en eventos culturales públicos. La actividad académica trabajará cuatro temáticas: el empleo de la transmisión oral entre diferentes generaciones, la estrecha relación que tiene la oralidad en contextos de lenguas minoritarias, la perspectiva de género y las investigaciones aplicadas en ciencia y tecnología. En 2015 se desarrollarán encuentros previos para fomentar la relación entre improvisadores europeos y divulgar la oralidad en otros territorios.

Kalebegiak

DONOSTIA KULTURA | EHU/UPV | EUSKADIKO FILMATEGIA
LARROTXENE KULTUR ETXEA | MORIARTI PRODUKZIOAK | MUSIKENE

ZINEMAKO PROFESIONALEN HIRU BELAUNALDI HIRIA IRUDIKATZEN

Donostiaren erretratu bat egitea, hamabi zinemagileren begiradaren bitartez. Horretan datza *Kalebegiak*en proposamena: errealizadore ospetsuek, ibilbide handiko profesionalak eta hasiberriek parte hartzen duten produkzio bat egitean. 2016an estreinatuko da, Donostiako Zinemaldian. *Kalebegiak* proiektuak erlazio berri bat proposatzen du zinemaren eta Donostiaren artean, hiriak betidanik erakustaldiekin eta jaialdiekin izan duen erlazioetik desberdina. Ikuspegi berri horrek tokiko ekoizpen zinematografikoa sustatzea bilatzen du nagusiki, eta Larrotxene Kultur Etxea aurkezten zaigu proiektuaren bihotz izateko.

Kalebegiak diziplina anitzeko proiektu bat da. Musikenek soinu-bandaren konposizioan parte hartuko du eta UPV/EHuko Itzulpengintza eta Interpretazio Fakultateko ikasleek egingo dituzte azpititulua, eleaniztasuna ziurtatzeko. Gurea bezalako lurralde txiki batek eskaintzen duen zinemagileen zerrenda itzela Hiriburutza programan nolabait islatu behar zen.

TRES GENERACIONES DE PROFESIONALES DEL CINE RETRATAN SU CIUDAD

Trazar un retrato sobre San Sebastián a través de la mirada de doce cineastas. Esta es la propuesta de *Kalebegiak*, una producción en la que participan realizadores consagrados, profesionales de trayectoria contrastada y principiantes. La producción se estrenará en 2016 durante el Festival de San Sebastián. El proyecto *Kalebegiak* propone una nueva relación entre el cine y San Sebastián, tradicionalmente vinculados a través de la exhibición y los festivales. Este nuevo enfoque tiene como principal objetivo estimular la producción cinematográfica local, con el Centro Cultural Larrotxene, especializado en producción audiovisual, como corazón del proyecto.

Kalebegiak es un proyecto multidisciplinar: Musikene participará en la composición de la banda sonora y la Facultad de Traducción e Interpretación de la UPV/EHU elaborará los subtítulos para garantizar la diversidad lingüística. El apabullante elenco de cineastas en un territorio tan pequeño como el nuestro debía tener reflejo en el programa de la Capitalidad.

In varietate concordia

BAGERA | MARGA BERRA ZUBIETA | EUSKARA ELKARTEA

BA AL ZENEKIEN DONOSTIAN 100 HIZKUNTZA INGURU HITZ EGITEN DIRELA?

In varietate concordia ekimenak —Europar Batasunaren leloa— gure hiriko hizkuntza-aniztasuna ezagutzera ematea du helburu. Izan ere, Donostiako kaleetan 100 hizkuntza inguru entzuten baitira egunero.

Aniztasun hori azpimarratzeko, ekimenak zubiak eraiki nahi ditu hizkuntza horien artean. Hitzak izango dira lehengai, eta hitzak ahoskatze-ko modua, berriz, elkar konektatzeko aitzakia. «Su» (euskaraz), «chou» (aza frantsesez) eta «shoe» (zapata ingelesez) antzera ahoskatzen dira, baina esanahi oso desberdineko hitzak dira. Proiektu honek jolas bat proposatzen du: hitzak aurkitu eta bildu behar dira jolasaren bitartez, hitzen arteko konezioak eta potentzial poetikoa erakusteko. 11 donostiarr eleaniztun arduratuko dira hitzen arteko loturak ezartzeaz.

Marga Berra artista grafikoaren zuzendaritzapean garatuko da proiektua, honako ideia hau abiapuntutzat hartuta: hizkuntza desberdinetako hitzak ezberdinak dira, baina soinuari erreparatzen badiogu, guztiek berdinak dirudite. Hainbat tailer egin eta gero, erakusketa bat antolatuko da eta liburu fonetiko-poetiko bat argitaratuko da.

¿SABÍAS QUE EN SAN SEBASTIÁN SE HABLAN ALREDEDOR DE 100 IDIOMAS?

In varietate concordia —lema de la Unión Europea— pretende dar a conocer la diversidad lingüística de nuestra ciudad. En las calles de San Sebastián se escuchan cada día alrededor de 100 idiomas.

Con objeto de poner de manifiesto esta diversidad, la iniciativa pretende construir puentes entre estas lenguas. Las palabras serán la materia prima y el modo de pronunciarlas el pretexto de conexión. «Su», fuego en euskera, «chou», col en francés y «shoe», zapato en inglés, se pronuncian de modo similar, pero tienen significados distintos. El juego que plantea este proyecto consiste en descubrir y recopilar palabras de un modo lúdico para mostrar estas conexiones y su potencial poético. 11 donostiarras políglotas serán los encargados de trazar estos vínculos entre palabras.

Todo ello bajo la dirección de la artista gráfica Marga Berra, quien parte de la siguiente idea: las palabras de los diferentes idiomas son distintas pero, si reparamos en el sonido, todas suenan igual. Tras realizar diversos talleres se organizará una exposición y se editará un libro fonético-poético.

Tosta CC

CELTIC NEIGHBOURS | EALAIN NA GAELTACHTA AFÓK
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA | PRÍSEACT NAN EALAN

HIZKUNTZA- ETA KULTURA-ANIZTASUNAREN KARGA KOSTALDE ATLANTIKOAN

Erlazio berezi bat dago Europako kostalde atlantikoko erkidegoen eta horien hizkuntza gutxituen ezau-garrien artean. «Tosta» (ontziaren bankada) hizkuntza horietako askotan aurki daitekeen hitz bat da. Proiektu honen helburua da hainbat erkidego-ren arteko kultur trukea sustatzea eta indartzea. Parte hartzen duen lurralde bakoitzak egonaldi bat antolatuko du kanpoko artista batentzat. Artista horrek sorkuntzan jardungo du eta bere lana ezagutzera emateko jarduerak antolatuko ditu. 2016ko ekainetik irailera edukiontzien set batek (kultur karga) Gales, Irlanda, Eskozia, Frisia, Feroe uharteak, Britainia eta Galizia bisitatuko ditu.

Kultur kargari harrera egiteko aukeratu diren lekuetan *pop-up* jaialdi bat antolatuko da, asteburu oso batean. Jaialdi hori aukera bikaina izango da lurralde bakoitzeko kultur eragileen jarduerak, egonaldi artistikoen aurretiko sorkuntzak eta DSS2016EU proiektua partekatzeko. Irailaren 26an, Hizkuntzen Europako Egunean, amaituko da *Tosta CC*, kultur karga Donostiara iristean. Ongietorria egiteko ospakizunak antolatuko dira, halaber.

CARGA DE DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA Y CULTURAL POR LA COSTA ATLÁNTICA

Existe un vínculo especial entre las comunidades de la costa atlántica europea y sus características lenguas minoritarias. «Tosta» (bancada de embarcación) es una palabra compartida por muchas de ellas. Este proyecto tiene como fin fomentar y fortalecer el intercambio cultural entre estas comunidades. Cada territorio participante acogerá a un artista foráneo en residencia, que se dedicará a la creación y a actividades paralelas para difundir su trabajo. Un set de contenedores (la carga cultural) viajará de junio a septiembre de 2016 visitando Gales, Irlanda, Escocia, Frisia, Islas Feroe, Bretaña y Galicia.

En cada lugar seleccionado para acoger la carga cultural se celebrará un festival *pop-up* durante un fin de semana, que servirá de punto de encuentro para compartir las actividades de las y los agentes culturales de cada territorio, las creaciones previas de las residencias artísticas y el proyecto DSS2016EU. *Tosta CC* finalizará el 26 de septiembre, Día Europeo de las Lenguas, con la llegada de la carga cultural a San Sebastián y una gran celebración de bienvenida.



Dani Bianco.

ENERGIA-OLATUAK OLAS DE ENERGÍA



DSS2016Euk herritarren ekimenei erantzutera zuzendutako ildo oso bat barne hartu nahi izan du bere kultur programan. Oso erraza den sistema baten bidez, pertsonak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek aukera edukiko dute beren kultur proposamenak egia bihurtzeko, eta proiektu horiek *Ardora* izeneko herritarren kontseiluak ebaluatuko ditu.

Hilero, kontseiluak bost proiektu aukeratuko ditu eta bakoitzari 2.016€ko laguntza emango dio. Horrez gain, bigarren modalitate batean, proiektu gehigarri bat aukeratuko du kontseiluak bi hilean behin, eta proiektu honen hedapena, kalitatea edo ezaugarriak kontuan hartuta, 20.160€ko laguntza jasoko du.

Ardora herritarren kontseilua Donostiako herritarren artean aukeratutako 75 lagunek osatuko dute. Aipatutako kontseiluaren ardura izango da proiektuak aukeratzeko irizpideak definitzea eta berak aukeratuko ditu ekimen egokienak, ezarritako jarraibideen arabera, betiere Hiriburutzaren balioekin bat eginda.

ENERGIA-OLATUAK kultura ulertzeko eta praktikatzeko modu berri baterantz ematen den urrats bat gehiago da. Esperimentua da, herritarrek kulturaren kudeaketan duten presentzia sustatzeko eta parte-hartzean erreferentziazkoa izan daitekeen esperientzia bat ondare gisa uzteko.

DSS2016EU ha querido dedicar toda una línea de su programa cultural a dar respuesta a la iniciativa ciudadana. A través de un sistema muy sencillo, personas y asociaciones sin ánimo de lucro tendrán la oportunidad de hacer realidad sus propuestas de proyectos culturales, que serán evaluadas por un consejo ciudadano denominado *Ardora*.

Mensualmente, el consejo seleccionará un paquete de cinco proyectos y dotará cada uno de ellos con una ayuda de 2.016€. Además, en una segunda modalidad, el consejo seleccionará cada dos meses un proyecto adicional que, por su ambición, calidad o características, recibirá una ayuda de 20.160€.

El consejo ciudadano *Ardora*, formado por 75 personas seleccionadas entre la ciudadanía donostiarra, definirá los criterios para la elección de los proyectos y escogerá las iniciativas más adecuadas de entre las presentadas según estas pautas, siempre en coherencia con los valores de la Capitalidad.

OLAS DE ENERGÍA constituye un paso más hacia una nueva manera de entender y practicar la cultura. Un experimento que pretende emprender un camino para fomentar la presencia ciudadana en la gestión cultural y legar una experiencia que pueda ser referencial en el ámbito de la participación.



Jan Garbarek © Heineken Jazzaldia. Lolo Vasco.

ELKARRIZKETAK CONVERSACIONES



DSS2016Euren programa ofiziala ELKARRIZKETAK atalarekin osatuko da. 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren eta hiriko kultur agenda ofizialaren artean elkarrizketa sustatzeko diseinatu den ildo da.

Atal honen bitartez, proiektu espezifikokoak sortuko dira trukearen botere sortzailearen inguruan. Donostiako hiru jaialdi garrantzitsuenak (Zinemaldia, Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia) eta lurraldeko beste kultur erakunde batzuk zein dFeria, Dock of the Bay edo Surfilm Festibal jaialdiek Hiriburutzarekin lankidetzat bat ezarri dute parte-hartzea edo Europarekin dugun konexioa bezalako balioak erabiltzeko.

DSS2016EU orain arte era informal batean egiten ari zen apustua, beraz, programazio-ildo nagusi bilakatu da orain, eta dagoeneko lotura estuak egin ditu hiriko programatzaileekin. Inguruko hiri batzuetakoekin ere hasi du harremana. Elkarbizitarako tresna nagusia, elkarrizketa, kultur aberasterako bide bihurtzen da horrela; Hiriburutzaren balioak hiriko kultur ekosistema iraunkorrean txertatzeko bide eraginkorra.

El programa oficial de DSS2016EU se complementará con CONVERSACIONES, una línea diseñada para poner en diálogo la Capital Europea de la Cultura 2016 con la agenda cultural oficial de la ciudad. A través de esta línea se generarán proyectos específicos alrededor de la idea del poder creador del intercambio.

Los tres grandes festivales donostiarros —Zinemaldia, Jazzaldia y Quincena Musical—, y otras instituciones culturales del territorio, como los festivales dFeria, Dock of the Bay o el Surfilm Festibal, ya han establecido una reciprocidad con la Capitalidad para poner en práctica valores como la participación o la conexión con Europa.

La apuesta que DSS2016EU venía desarrollando hasta este año de manera informal se consolida así como una línea principal de programación, que ya ha establecido sólidos vínculos con las y los programadores de la ciudad e incluso ha abierto vías de comunicación con otros de ciudades cercanas. La principal herramienta para la convivencia, la conversación, se convierte de este modo en una vía para el enriquecimiento cultural. Una manera eficaz de inocular los valores de la Capitalidad en el ecosistema cultural permanente de la ciudad.



Sara Santos.

ONDAREA LEGADO

Eta 2016 ondoren, zer? Ondarea da Donostia 2016 kultur proiektuaren xede garrantzitsuenetako bat. DSS2016EU programa ondare ukiezin baina botere-tsua uzteko diseinatu da: herritartasun askeagoa, humanistagoa eta giza eskubideak gehiago errespetatuko ditue-na; gizarte parte-hartzaileagoa, bere gatazkak kulturaren eta arteen bitartez konpontzen ikasteko gai izango dena. Donostiak sorkuntza-prozesuen erreferente izatera iritsi nahi du.

DSS2016Euren babespean garatutako hainbat proiektu, hala nola *Olatu Talka* edo *Musika parkean*, parte-hartzea eta trukea oinarrian dutenak, hiriarren kultur agendaren zati izatera pasa dira. Industria sortzaileak elkarbizitzarako eragile gisa sustatzeko, herritarrek kulturaren kudeaketan inplikatze eta artisten arteko lankidetzaz sustatzeko proiektuak duen borondatearen bi adibide baino ez dira.

DSS2016Euren proiektuen bitartez, jokaera berri horiek gizartearen zabal-tzea eta gizarte bateratuago, enpatikoago eta sortzaileago bat lortzeko balio izatea bilatzen da. 2017ko urtarri-la funtsezko data izango da. Hiriburutzaz-urtea amaitu eta gero, herritarrek alde zurretik eskaini duten energiaren uzta aprobetxatu behar du hiriak.

Y, después de 2016, ¿qué? El legado es uno de los fines principales del proyecto cultural de San Sebastián 2016. El programa de DSS2016EU se ha diseñado para legar una herencia intangible pero poderosa: una ciudadanía más libre, humanista y respetuosa con los derechos humanos, una sociedad más participativa que aprende a resolver sus conflictos a través de la cultura y las artes. San Sebastián desea convertirse en una referencia de los procesos creativos.

Algunos proyectos impulsados bajo el abrigo de DSS2016EU, como *Olatu Talka* o *Musika parkean*, basados en la participación y el intercambio, ya han pasado a formar parte de la agenda cultural propia de la ciudad. Son solo dos ejemplos de la voluntad del proyecto de impulsar las industrias creativas como motor para la convivencia, implicar a la ciudadanía en la gestión cultural y fomentar la colaboración entre artistas.

Los proyectos de DSS2016EU han sido concebidos para que estas nuevas formas permeen y fertilicen una sociedad más cohesionada, más empática y creativa. Enero de 2017 es una fecha clave. Una vez acabado el año de Capitalidad, la ciudad debe aprovechar el fruto de toda la energía ciudadana desplegada con anterioridad.



2016 GUNEA ESPACIO 2016



Suhiltzaileen eraikin ohia, Donostiako udal arkitekto eta hiriko suhiltzaileen arduraduna zen Juan Rafael Aldayk diseinatu zuena —baita Kontxako baranda ere— 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren egoitza da gaur egun. Eraikinak lantaldea hartzen du, proiektuaren balioak irudikatzen ditu eta hiriko kultura- eta gizarte-eragileenak diren jardueren estalpe da.

Eraikina kultura- eta komunikazio-rol bat betetzeko diseinatu da, baita DSS2016Euren egoitza izateko ere, eta jada Donostiako kultur zirkuituaren erreferentziarako espazio bihurtu da. Ireki zenetik, azoka solidarioak, kultur elkarten aurkezpenak, erakusketak eta ekintza solidarioak antolatu dira bertan. Esandakoaz gain, DSS2016Euk eta Tabakalerak batera landutako *Hirikilabs* proiektuan garatzen den ikerketaren epizentroa ere bada.

Erabilera anitzeko espazioa da, askotariko kultur jarduerak garatzeko eta gauzatzeko paregabea. Baina suhiltzaileen eraikinak helburu handizaleagoa du. Eraikuntza sinbolikoa da donostiarrentzat, Hiriburutzaren arimaren eta filosofiaren isla da, herritar guztientzat irekita dagoen espazioa.

El antiguo edificio del cuerpo de bomberos, diseñado por quien fuera arquitecto municipal de San Sebastián y jefe de bomberos de la ciudad, Juan Rafael Alday —autor también de la barandilla de La Concha—, es la actual sede de la Capital Europea de la Cultura 2016. El edificio acoge a su equipo de trabajo, simboliza sus valores y cobija actividades propias y de agentes culturales y sociales de la ciudad.


Concebido para que ejerza un rol cultural pero también comunicativo, además de la función de sede de DSS2016EU, el edificio se ha convertido ya en un espacio de referencia en el circuito cultural donostiarra. Desde su apertura, el espacio ha acogido mercados solidarios, presentaciones de organizaciones culturales, exposiciones y actos solidarios. Además, constituye el epicentro de la investigación que se desarrolla en el proyecto *Hirikilabs*, una iniciativa conjunta de DSS2016EU y Tabakalera.


Se trata de un espacio polivalente, idóneo para el desarrollo y la ejecución de un amplio abanico de actividades culturales. Pero el edificio de bomberos asume un objetivo más ambicioso. Esta construcción, simbólica para los donostiarros, es reflejo del alma y la filosofía de la Capitalidad, un espacio abierto a toda la ciudadanía.

EUROPAKO BAZKIDEAK

SOCIOS EUROPEOS

01 ABERYSTWYTH	29 LONDON
02 AMSTERDAM	30 MARIBOR
03 ATENAS	31 MATERA
04 BARI	32 MONS
05 BELFAST	33 MONTPELLIER
06 BELGRADE	34 NEWCASTLE UPON TYNE
07 BERLIN	35 PARIS
08 BITOLA	36 PÉCS
09 BONN	37 PLZEN
10 BORDEAUX	38 PISA
11 BRUXELLES	39 PLOVDIV
12 CARDIFF	40 PRIZREN
13 CHARLEVILLE-MEZIERES	41 RAVENNA
14 CO. NA GAILLIMHE	42 RIGA
15 COIMBRA	43 RIJEKA
16 DERRY	44 ROMA
17 DORTMUND	45 SARAJEVO
18 DRESDEN	46 SIENA
19 DUBLIN	47 STOCKHOLM
20 GDANSK	48 UMEA
21 IASI	49 UTRECHT
22 KALININGRAD	50 VALLETTA
23 KARLSRUHE	51 VIENA
24 KLAGENFURTH	52 VITANJE
25 KOŠICE	53 WESTERN ISLES
26 LEEUWARDEN	54 WROCŁAW
27 LINZ	55 ZAGREB
28 LJUBLJANA	





DONOSTIA 2016 FUNDAZIOAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO/
CONTACTO CON LA FUNDACIÓN SAN SEBASTIÁN 2016
Calle Easo kalea 43
20006 Donostia/San Sebastián
info@dss2016.eu
T +34 943 483 344

KOORDINAZIO EDITORIALA, ERREDAKZIOA ETA ZUZENKETA/
COORDINACIÓN EDITORIAL, REDACCIÓN Y CORRECCIÓN
2016 lantaldea / Equipo 2016

ITZULPENA/TRADUCCIÓN
Bitez, Careen Irwin, Susana Olivan

DISEINU GRAFIKOA/DISEÑO GRÁFICO
Joaquín Gáñez

ARGAZKIAK/FOTOGRAFÍA
Alex Iturralde

INPRIMAKETA/ IMPRESIÓN
Gráficas Lorea

Erakunde hauen laguntzarekin / Con el apoyo de:



EL DIARIO VASCO



Eta programa aurrerapen honetan azaltzen diren proiektuetan laguntzen duten eragile guztiak / Y todos los agentes que colaboran en los proyectos incluidos en este avance de programa.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



info@dss2016.eu
www.dss2016.eu
facebook.com/dss2016
twitter.com/dss2016

